

Herririk Herri | 2 |

Tabira egoitzako langileek protestak egin dituzte "hiru langileren kaleratzea" salatuz



Berbaz | 8 |

J. Azpitarte: "Berrizek azpiegiturak baditu; orain herrigintza landu beharra dago"

Kirola | 16 |

Kulturalak play-off postuetara sailkatzea lortu du liga amaitzeko lehia biren faltan

Etkez etxeko janari zerbitzua eskainiko du Berrizko Udalak

Berriz• Durangaldean aitzindaria den egitasmoa osatu du Ongizate Sailak. Astean behin, aste gutxira-ko izango diren zazpi bazkari banatuko dituzte etxez etxe. Zerbitzua jaso ahal izateko baldintzen artean dago, besteak beste, 60 urtetik gora izatea. Hilaren 13ra arte eman daiteke izena. **4**

Montorrostetik Kurutzondorako bidea egiteko urratsa

Elorrio• Montorroste inguruan bizileku berriak eraikiko dituen Montorroste SL enpresagaz hitzarmena sinatu du udalak. Enpresa horrek Kurutzondoko biribilgunea eta Montorrosteko bidea egingo ditu; ordainetan, lur zati bat utziko dio udalak enpresari, inguru hartan hamabi bizileku egiteko. **4**

25 urte daramate Kurutziaga ikastolan antzerkigintzan

KULTURA • Antzerki tailerra martxan ipini zutela 25 urte direla ospagai dute Kurutziaga ikastolan. Erakusketa, bideoa eta antzezlana prestatu dituzte urteurrenaren harira: maiatzaren 12an zabalduko dute erakusketa eta 20an eskainiko dute obra. **11**



• Durango

Aldi baterako aparkalekua egokituko dute San Fauston **2**

• Durangaldea

Ekipamendua eta zerbitzuak aztergai ditu Ezker Abertzaleak **6**

• Atxondo

Igerileku ondoan atonduko dituzte ortu ludikoak **7**

Hauteskunde eztabaida egingo du Anbotok Plateruenean

> Durangoko Udalerako hautagai zerrendak aurkeztu dituzten alderdiak dira gonbidatu

> Maiatzaren 10ean, 20:00etan, izango da herritarrei irekita dagoen eztabaida **2**



Paleolito garaiko labar-margoak, Askondo koban

Mañaria• Pintura gorri marrazturiko bost zaldi eta giza-esku baten irudia aurkitu dituzte, besteak beste, Mañarian, Urkuleta auzoko Askondo koban. Labar-margoak "zientifikoki garrantzia

izugarria" daukatela dio Diego Garate arkeologoak. Hainbat influentzia ageri dira pinturretan, eta duela 28.000-20.000 urte bitartekoak izan daitezke; Santimamiñekoak baino lehenagokoak. **3**



Electricidad Pujanaren Instalazio Berria 1964tik zerbitzua ematen

PUJANA ELECTRICIDAD



Urkiola 2, behea
48200 DURANGO
Tel.: 605 705 818

HERRIRIK HERRI >

DURANGO

Alderdien egitasmoak bertatik bertara ezagutzeko aukera

Hauteskunde eztabaida prestatu du Anbotok Plateruenean martitzenerako; zerrendak aurkeztu dituzten alderdietako ordezkariak gonbidatu ditu



Maiatzaren 22ko udal eta foru hauteskundeen harira antolatu du Anbotok eztabaida politikoa. K.A.

Maiatzaren 10ean, 20:00etan, Anbotok hauteskundeen gaineko eztabaida politikoa gidatuko du Plateruenean. Durangoko Udalerako hautagaitzak aurkeztu dituzten alderdi guztietako ordezkariak daude gonbidatuta, eta Durangoren gaurko egoera eta etorkizuna izango dituzte berbagai.

Alderdiak Durangorako dituzten egitasmoak eta datorren lege-gintzaldirako osatu duten progra-

ma bertatik bertara ezagutu ahaliko ditugu, eztabaida herritarrei zabalik egongo delako.

Livestream-en eta Hamaikan Plateruenera joan ezin duenak eztabaida zuzenean jarraitzeko aukera izango du www.anboto.org-en, livestream bidez eskainiko baita. Eszenatokiko lau tokitan beste hainbeste kamara egokituko dira eztabaidaren zehaztasunak hainbat ikuspuntutik eskaintzeko.

Debatea livestream bidez emango da www.anboto.org atarian, 20:00etatik aurrera

Horrez gainera, unerik interesgarriekin osatutako bideoak ere eskegiko dira webgunean. Hori gutxi balitz, maiatzaren 13an, Hamaika telebistak debatea osorik eskainiko du berriro, gaueko 22:40etik aurrera. ■ J.Derteano

Joan zen barikutik aske dago Oier Gonzalez

Frantziako hainbat espetxetan ia sei urte preso egon eta gero, Oier Gonzalez durangarra aske geratu zen joan zen barikuan. Goizaldeko 03:00ak aldera heldu zen Durangora, eta bere zain zeuden 200 lagun inguruk lehenengo harrera egin zioten.

Gonzalez 2005eko uztailean atxilotu zuten, Frantzian. ETAko kidea izatea egotzita, zazpi urteko espetxe zigorra ezarri zioten. Hainbat kartzelatik igaro da orduetik; Fresnes, Muret, Villefranche, Saint Martin de Re eta Lyonon egon da preso, besteak beste.

Zigorra bete ondoren, joan zen astean Espainiaratu egin zuten Gonzalez. Bariku gaua Madrilgo Soto del Real kartzelara igaro eta gero, aske utzi zuten. ■ A.U.

Maiatzerako bisita gidatuak antolatu dituzte

Zapatu honetan hasita, asteburuetan egingo dituzte bisitak, 25 pertsonako taldeetan

Hainbat herritarrek Turismo Bulegoan egindako eskariari erantzuteko, zapatu-domekatan Durangoko historia ezagutzeko bisita gidatuak antolatu dituzte.

"Turisten aukera berberak" herritarrei eskaintzeko asmoagaz sortu dira bisitak

Bi bisita mota antolatu dituzte. Batean, Erdi Aroko Durangoren gainean egingo dute berba, eta Kuruzesantu museoa bisitatu dute. Bestean, museoa bisitaren parte izango da eta Tabirako San Pedrorra ere joango dira. Natalia de Naveran turismo tek-

nikariak azaldu duenez, "batzutan herritarrek ez dituzte turisten aukerakizaten, eta durangar asko gerturatu da informazio eske".

Ordutegiak

Erdi Aroko Durango eta Kuruzesantu museoa bisita domeka honetan eta hilaren 22an egingo dute euskaraz, 12:30ean. Gaztelaraz maiatzeko zapatu guztietan egingo dute, 10:30ean. **Kuruzesantu museoa eta Tabirako San Pedro** eliza bisita, berriz, maiatzaren 15ean eta 29an egingo dute euskaraz, 12:30ean. Gaztelaraz zapatu guztietan irtengo dute, 12:30ean. Ordu eta erdiko bisitak izango dira eta 25 pertsonako taldeak egitea pentsatu dute. ■ J.D.

San Fauston aldi baterako aparkalekua ipiniko dute

Zentro zibikoko aparkalekua prest egon arte eliza alboan 59 plazakoa ipiniko du udalak

Elizaren eskumako aldean dagoen lursailan 59 plazako aparkalekua atonduko du udalak, "auzoko aparkaleku arazoak behin-behinean konpontzeko". Berritzegunea bota eta zentro zibikoaren azpian lur azpiko aparkalekuak eraikitzen dituzten arte egongo litzateke aparkalekua bertan.

Aitziber Irigoras Durangoko alkatearen esanetan, "auzo elkar-teetatik sarri azaldu dute aparkatzeko leku faltan daudela". Etxe-

bizitza berriak egiten dabilzane-tik, gainera, leku gutxiago dutela azaldu du alkateak: "Obrek 36 aparkaleku kendu dituzte". Hori dela-eta, azken hileotan behin-behineko aparkalekuak sortu ditu udalak, eta laster eliza alboan egingo dute 59 plazakoa. Lanak datorren astean hasiko dituzte, eta hamar egunetan amaitzea espero du udalak.

Zentro zibikoa

Ikasturte amaieran "Berritzegunea lehengo Azterlanera igaro bezain laster" hasiko dira zentro zibikoko lanak. Eraikina botatzeko lanak "alboko kantxan egiten diren ekin-tzekin koordinatzen" saiatuko direla esan du Irigorasek. ■ A.U.

Tabira egoitzako kaleratzeen kontrako protestak egin dituzte

Egoitzako zuzendariak bezero kopurua "jai-tsi" dela eta "gerrikoa estutu" behar izan dutela dio



Egoitzaren aurrean egin dituzte protestak.

Tabira nagusien egoitza eta egu-neko zentroko langileek mobilizazioak egin dituzte asteon, hiru lankideren kaleratzea salatzen. ELAren arabera, "zuzendaritzak proposatutako enplegu erregulazio espeditentea ez onartzeagatik" kaleratu dituzte langile finkoak. Zuzendariak azaldu du erabil-tzaile kopurua gutxitu egin dela eta hori dela-eta "gerrikoa estutu" behar izan dutela.

Ander Akarregi ELAko ordezkariak azaldu duenez, "arazoak duela sei hiletik datz, soldaten ordainketan irregulartasunak hasi zirenean". Gero erregulazio espeditentea zabaltea proposatu zuen

zuzendaritzak, eta baldintzak ez onartzeagatik kaleratu zituzten langileak, Akarregiren esanetan.

Egoitzako zuzendari Karmelo Barrenetxeak erabiltzaileak jait-si direlako aldaketa batzuk egi-tea erabaki duela dio: "Gaueko lan-postua neuk hartu dut eta hiru langileri ordu gutxiago lan eginez soldata antzeko ordaintzeko proposamena egin nien; bik ez dute onartu. Gainera, hamasei lagun zaintzeko hamabi langile egotea gehiegi da". Langileek, berriz, diru arazoak zuzendaritzaren "kudea-keta txarragatik" direla diote: "Bes-tela, ez dugu ulertzen; egoitza ia beti beteta egoten da eta". ■ A.U.





MAÑARIA

Askondo kobako aurkikuntza arkeologikoa aurkeztu dute

Labar-artearen erakusletzat dauzkate Urkuleta auzoan topatutako margoak

Martitzenean, Bizkaiko Aldundiaren Bilboko egoitzan aurkeztu zuten Mañariko Urkuleta auzoko Askondo kobako aurkikuntza arkeologikoa. Diego Garate, Joseba Rios eta

Besteak beste, pintura gorritz margozturiko bost zaldi eta giza-esku baten irudia topatu dituzte Askondon



Atzo Bilbon aurkeztu zituzten infografietako bi.

Ander Ugarte arkeologoek paleolito garaiko labar-artearen erakusletzat jo dituzten hamabost irudi topatu dituzte: gorritz margozturiko bost zaldi, grabatutako zaldi bat, pintura gorritz egindako giza-esku baten irudia, lerro eta puntuen irudiak; horman bi metrora sartutako hezur bat ere topatu dute.

Ikertzaileek azaldu dutenez, 1912tik da ezaguna Askondo kobazuloa; Galvez Cañero geologoak indusketa txiki bat egin zuenetik. Eurak, urteetan desagertutzat emandako aztarnategia zer egoeratan dagoen aztertzeraz joan ziren Askondo kobazuloa urte hasieran, Garatek jakin eragin duenez, eta "margoak ikusi eta berehala" konturatu ei ziren aurkikuntza horren garrantziaz: Euskal Herriko labar-artearen erakusle bakanetarikoa da Askondokoa.

Aurrekariak

Durandaldean kobazuloen hormetan irudiak agertu diren lehenengo aldia da Askondokoa, baina orain 25.000-20.000 urte bitarteko aztarnak topatu izan dituzte eskualdean: 1931n Atxarteko Bolinkoban egindako indusketetan, gaur egun Bilboko Museo Arkeologikoan ikusgai dauden gezi puntak eta bestelako tresnak aurkitu zituen Barandiaranek. ■ I. Esteban.

Diego Garate
Arkeologoa



"Zientifikoki garrantzia izugarria daukate irudiek"

Zer garrantzia dauka Mañariko aurkikuntzak?

Kobazuloa bera eta pinturak kontserbazio egoera kaskarrean dauden arren, esangura oso handiko aurkikuntza da Askondokoa. Ez dira pintura asko, baina zientifikoki garrantzia izugarria daukaten irudiak dira, garai horretako pinturak ez baitira arruntak gurean. Aurretik, besteak beste, Bolinkoba kobazuloan topatu ziren aztarnategiei eskerrak geneukan garai haren berri, baina lehenengoz agertu da artea.

Arkeologoaren laborategi-lanaren hasiera puntuan gaude.

Hori da, kobazuloa orain bost hilabete aurkitu genuen, eta orain arte tramitazioak egiten ibili gara. Orain ikerketa burutu behar dugu: lehenengo eta behin, dagoena zer den zehaztu behar dugu. Hasteko, ikerketa egin behar da.

Zer hipotesi darabilzue?

Ikuspegi arkeologikotik oso interesanteak dira Askondoko hamabost pinturak. Inguruko beste kobazuloekin hartueman artistiko bat antzematen da: agertzen diren zaldiak, adibidez, Europako mendebaldean, Frantzian, Kantauri mendilerroan edo Andaluzian agertzen direnak lakoak dira. Hainbat influentzia ageri dira Askondoko pinturotan. Grabetiense aldiko pinturak direla esan dezakegu, duela 28.000-20.000 urtekoak.

Zuen ikuspuntutik zer etorkizun izan dezake gune horrek?

Lehenengo pausua ikerketa garatzea da, eta lehengoratzela burutzea ondoren. Izan ere, nahiko egoera kaskarrean daude pinturak. Hirugarren fasea difusioa izango litzateke; erakusketak bat eta lehengoratzela birtuala burutzea izan daitezke aukerak.

IURRETA

Udako tailerretarako izena emateko aukera dago

3-14 urteko neska-mutilei zuzendutakoak dira

Maiatzaren 13ra arte eman daiteke izena 3 urtetik 14ra bitarteko umeei zuzenduta Udalak eraturako tailerretan parte hartzeko. Umeen aisari "alternatiba" eman guran, uztailearen 1etik 29ra garatuko dituzte, 09:00etatik 14:30era.

Umeentzat "aberasgarriak" diren ekintzak burutuko dituztela azaldu dute, "entretienigarriak

eta dibertigarriak". Eskola publikoaren lokaletan garatuko dira, ekintza gehienak herrian eta aire librean eginez. Egitasmo elebiduna eta hezigarria izango da eta iurretarrak dute lehentasuna; Maiztegi eskolakoek ondoren eta azkenik beste herrietakoek. Ibarretxe kultur etxean edo udal-etxean eman daiteke izena. ■ A.B.



Helburu nagusiak aurkeztu ditu EAJK



Iñaki Totorikaguena alkategaiak aurkeztu ditu EAJren hauteskundeetarako helburuak. Aurretik ezagunak direnak eta "ikus-puntu berria" eskainiko duten aurpegi berri bi izan ditu alboan: Txomin Balanzategi eta Oskar Koka. Besteak beste, "etxebizitzak ahalik eta prezio onenean eskaintzea, N634 errepidearen herriguneko tartea hiri zeharkale bihurtzeko pausuak ematea, Larrakozelaiko kirol instalazioak garatzea eta herriarren parte hartzerako bideak sustatzea" gura dute. ■ I.E.

A. Urreta podólogo

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podinara Urreta Jainaga
PODÓLOGOIA 188. Elkargokidea

Hurrengo eraikuntza

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea • Tel.: 94 681 66 73
Iurreta • www.zarateyelexpe.com

DURANGO

Elorrion ere aukera onak

Betikoak
flexografía

ofizinarako zigiluak
fotolitoak

Bixente Kapanaga, 9 - 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41

Hemen agertu gura baduzu deitu!

94 621 79 02

BERRIZ

Etkez etxeko janari zerbitzua aurkeztuko du udalak

Durungaldean aitzindaria da; hilaren 13ra arte eman daiteke izena

Berrizko Udala etkez etxeko janari zerbitzua prestatzen eta zehazten ibili da azken hilabeteetan, eta, martitzenean, hilaren 10ean, jendaurrean aurkeztuko dute. Jubilatuen egoitzan izango da aurkezpena, arratsaldeko 17:30ean.

Gizarte Ongizate Siletik iazko azaroan hasi ziren herritarrei zerbitzuaz galdezka, interesa neurtezko asmoz, eta urtarrilean udalbatzarrean onartu zuten zerbitzua arautzen duen ordenantza; maiatzaren 13an amaituko da izena emateko epea. *On Ein!* izenagaz zabalduko da zerbitzua Berriren. Astean behin, aste guztirako izango diren zazpi bazkari jasoko dira; lehen eta bigarren platerak, azkenburukoa eta ogia egongo dira menuan. Jakiak mikrouhin labean berotzeko egokiak diren ontzietan eramango dituzte etxetara, banaketa furgoneta hozkailuetan egin eta gero. Dieta pertsonalizatu eta elikadura ohituren jarraipena ere eskainiko dute.

ko dira; lehen eta bigarren platerak, azkenburukoa eta ogia egongo dira menuan. Jakiak mikrouhin labean berotzeko egokiak diren ontzietan eramango dituzte etxetara, banaketa furgoneta hozkailuetan egin eta gero. Dieta pertsonalizatu eta elikadura ohituren jarraipena ere eskainiko dute.

Malnutrizio eta istripu arriskuak saihestea eta erabiltzaileari denbora libre gehiago ematea ditu jomuga

Helburuak

On Ein! zerbitzuaren erabiltzaileek etxean gustura egoteko eta autonomia mantentzeko behar duten laguntza izatea da udalaren helburua. Malnutrizioa eta istripu arriskuak saihestea eta erabiltzaileari denbora libre gehiago ematea ere baditu jomuga. Erabiltzaile izateko bete beharreko baldin-

tzak honako hauek dira: herrian erroldatuta egotea gutxienez sei hilabetean, beharrezana Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egiaztatuta egotea eta etxebizitzaren bizigarritasun baldintzak egokiak izatea.

60 urtetik gorakoentzako eta bakarrik bizi edo bizilaguna antzeko egoeran dutenentzako da zerbitzua. Ordaintzeko laguntza emango dute, urteko errenta percapitaren arabera. ■ M. Onaindia.

ZERBITZUA

Menua

Lehen eta bigarren platerak, postrea eta ogia

Banaketa

Astean behin, aste guztirako bazkariak

Prestatzeko

Mikrouhin labean berotzeko ontzietan

Eskaintza

Dieta pertsonalizatua eta ohituren jarraipena

Erabiltzaileek autonomia mantentzeko behar duten laguntza izatea da udalaren helburuetariko bat

ELORRIO

Montorrostetik Kurutzondora bidea egiteko asmoa, aurrera

Montorrosten 50 etxebizitza eraikiko dituzte, horietatik 12 tasatuak



Herriguneko trafikoa arintzeko eratzunaren parte izango da errepide berria.

Montorroste inguruan etxebizitza berriak eraikiko dituen Montorroste SL enpresagaz hitzarmena sinatu du udalak, eta enpresa hori ardurtuko da Kurutzondoko biribilgunea eta Montorroste lotzeko erre-

pidea egiteaz. Horren truke, udalak lur zati bat utziko dio enpresari, eta Montorrosten hamabi etxebizitza gehiago eraikiko ditu.

Enpresa horregaz hitzarmena zeukan udalak lehen ere: Arriola alboko jauregiko lorategia eman zuen Montorroste SL-k publiko-za zabaltzeko, eta udalak, horren trukean, Montorrosteko lursail bat utzi zion etxebizitzak eraikitzeko. Hasierako proiektuan 38 etxebizitza zeuden, eta hitzarmen berriagaz, beraz, 50 etxebizitza

izango dira. Niko Moreno alkateak azaldu duenez, etxebizitza horietatik hamabi tasatuak izango dira.

Azken udalbatzan onartu zuten hitzarmena, EHAK kontra bozkatuta. Hingintza plan berrian sartutako aldatetako bat da.

'Leihatila bakarra'

Azken udalbatzarrean onartu eta gero, EAeko administrazioetara aurkeztu beharreko dokumentuak udaletxeko erregistroan aurkeztu ahalko dira oraindik aurrera. ■ A.U.

Udalagaz akordioa lortuta, Montorrosten aurreikusitako bako bako etxebizitza gehiago eraikiko ditu Montorroste SL-k

ZALDIBAR

Solobarriako urbanizazioa amaitzeko azken lanetan

Parke bat, gunee berdeak, espaloiak, argiteria eta lurpeko zaborrontziak egokitu dituzte

Solobarriako futbol zelaiaren ondoan eraikitako auzuneko lanak amaitzeaz daude, udal ordezkariak zaldutenez. 48 etxebizitza berri daude bertan, eta ingurunea urbanizatzeko lanetan murgilduta egon dira azkenaldian.

Parke bat egokitu dute, eta gunee berdeak ere sortu dituzte.

Espaloiak eraiki dituzte, argiteria ipini eta lurpeko zaborrontziak egokitu ere bai. Idoia Mendiola-garai alkateak azaldu digunez, oraindik ez daude erabilgarri zaborrontzi horiek. Lanei dagokienez, etxean kasuan, amaitzeko lan txikiren bat baino ez dela falta dio Mendiola-garai. ■ M.O.



Zerrenda eta programa aurkeztu ditu EAJk



Nerea Garitagoitia izango da hilaren 22ko hauteskundeetarako Zaldibarko EAJren zerrendadurua.

Alde zaharraren eraberritzea dute lehentasun; eskaiera eta arrapala mekanikoak ipini gura dituzte, besteak beste.

Ospitalearen lurretan aisialdi gunea sortzea eta San Juan-goan museo etnografikoa zabaltzea ere proposatu dute.

Idoia Mendiola-garai gaur egungo alkatea, Aldundirako Durungaldeko hautagai aurkeztu zuten. ■ M.O.

Elorrioko AHTko lanak lehiaketa publikoan ipini dituzte

Abiadura Handiko Trenaren Elorri-Atxondo zatiko beharrak lehiaketa publikoan ipini ditu Espainiako Sustapen ministroak, ADIFen bitartez. AHTaren ibilbideko zati horrek 2,6 kilometro izango lituzke, eta Elorrioko lurretatik igaroko litzateke.

Tramu horrek hiru zubi izango lituzke; Kinatoin-880 metroko luzerakoa-, Zabaleta erreka-320 metroko luzerakoa-, eta Larrazabal errekatik hirugarrena-200 metroko luzerakoa-. 54,6 milioi euroko aurrekontua dauka zati horrek.

Atxondo-Abadiño

Jose Blanco Espainiako Sustapen ministroak duela gutxi azaldu duenez, Atxondo eta Abadiño arteko lanak aurten esleitzeko asmoa dute. Urte amaierarako bi tramuhorietan beharribiltzea aurreikusiko dute. ■ A.U.

Sustapen ministroak aurten hasi gura ditu lanak Elorrioren eta Atxondo-Abadiño zatian

'Mugimendu tailerra' hasiko da datorren astean Iturrin

Emakume Eskolaren baitan *Mugimendutailerra* hasiko dute hilaren 13an. Gorputzaren mugimenduen gaineko hausnarke- ta egingo dute ikastaroan. Tailerra emango duen Artaziak erte hezkuntza ekimeneko kideek diotenez, "maiz entzuten ditugun aginduak gure gorputzaren parte bihurtzen dira, gure mugimendua etengabe baldintzatuz".

Ikastaro teoriko eta praktikoa hiru egunetan emango dute Iturrin

Ikastaroa teorikoa eta praktikoa da: "Jolas fisikoak eginez eta dantza performance bideoak ikusiz gure mugimenduak aztertuko ditugu, eta mugitzeko bide berriak topatuko ditugu".

Ikastaroaren lehenengo eguna hilaren 13a izango da, 18:00etatik 20:00etara. 14an eta hurrengo zapatuan egingo dira beste bi klaseak, 10:00etatik 14:00etara. Udaleko erregistroan eman behar da izena. ■ A.U.

ARRIBIDE



Ind. Arriandi P.1
48215 IURRETA
-Bizkaia-

Tel.: 94 681 83 81
669 72 20 44

www.arribide.com • estacionservicio@arribide.com

Hiru gasolina-bono ZOZKETAGAI



15 euro

15 euro

Bialdu emaila zure datuekin
anboto@anboto.org-ra

DURANGALDEA

"Beharrizanen araberako antolaketa egokia" eskatuz

Amankomunazgoa, ekipamenduak eta zerbitzuak izango ditu aztergai Ezker Abertzaleak Durangaldea maite dugulako kanpainaren atal berrian



Iurretako San Migel plazan eman zuten prentsaurrekoa, joan zen barikuan.

Amankomunazgoaren zerbitzuak "berrantolatu" behar direla aldarrikatu du Ezker Abertzaleak, "egungo kudeaketa eskasa delako". Eskualdeko herri guztien parte-hartzea bermatu eta Durangaldearen oraina eta etorkizunaz arduratu behar dela esan dute: "Erakunde politikoa izan behar du". "Eztabaidatuz eta herritarren borondatea aintzat hartuz, lurralde

Amankomunazgoak lurralde antolaketa, ongizatea eta kultura lantzea proposatu dute

antolaketa, kultura eta gizarte ongizatealantzea" proposatu dute. Ekipamendu eta oinarrizko zerbitzuen kokapena "egokia" izan dadin, beharrezkotzat dituzte

eskualde mailako akordioak. "Benetako beharrizanen araberrako antolaketa egokia" gura dute. Oinarrizko baliabideen gestioa eskualde mailan adostea gura dute. Adibide legez, udalek "elekttrizitatea, telefonia eta Internet zerbitzuak kudeatzeko aukera" dute la diote, eta galdera hau luzatu: "Zergatik ez dira elkartzen udal guztiak horniketa kontratuak batera negoziatzeko?". ■ M. Onaindia

GARAI

Udaberriko Kontzertuak saileko saioa izango da bihar elizan

Arratsaldeko 20:00etan hasiko da kontzertua; lau abesbatza izango dira protagonista

Bizkaiko Abesbatzen Elkarrekin urtero eratzen duen Udaberriko Kontzertuak ekimena Garaira ailegatu da bihar. San Migel elizan eskainiko dute kontzertua lau abesbatzak, 20:00etatik aurrera. Zornotzako Brioleak eta Xuxurlariak, Bilboko Lagundi eta Lezamako Ekidazu abesbatzak

izango dira parte-hartzaile, antolatzaileek azaldu dutenez. Hogeita hamabi edizio ditu dagoeneko musika ekitaldi honek, eta aurten 88 taldek hartuko dute parte. Bizkaian zehar 102 kontzertu eskainiko dituzte guztira, ekainaren 25era bitartean. BBKk babesten du ekitaldia. ■ M.O.

EL MUNDO DEL JABON
Ireki berria!
Uribarri, 21 (zinema aurrean)
Tel.: 94 603 24 26
DURANGO

Martitzenean hainbat kontzentrazio egin zituzten Bilduren alde

Gorenak zerrendak baliogabetu ondoren, hainbat herritan "ilegalizaziorik ez" aldarrikatu zuten

Auzitegi Gorenak Bildu koalizioaren zerrenda guztiak baliogabetzeko erabakia hartu ondoren eta Auzitegi Konstituzionalaren erabakia jakin aurretik, Durangaldeko hainbat herritan kontzentrazioak egin zituzten martitzenean. Kontzentrazio guztietan lelo bera irakurri zitekeen: *Eskubide guztien alde, ilegalizaziorik ez*.

Durangon, esaterako, epaitegiaren aurrean kontzentratu ziren eta ondoren manifestazioan irten ziren PSE-EEren egoitzara.

ELA, LAB, STEE-EILAS, HIRU eta EHNEk osatutako gehiengo sindikalak ere kontzentrazioak egin ditu gaur. Iurretan Smurfiten aurrean batu dira; Abadiñon Layde aurrean; Berrizen Eituako gasolindegian; Atxondon Cemo-sa aurrean. Durangon 13:00etan batuko dira udaletxe aurrean.

Kontzentrazioa zapatuan
Bestalde Bilduk ere kontzentrazioa deitu du zapatuan 12:00etan Andra Mariko portikoan. ■ J.D.



Durangon eta Zaldibarren kontzentratu ziren besteak beste.

ABADIÑO

Gantza-Zelaietan babes ofizialeko 54 etxebizitza

Jaurlaritzak eraikiko ditu; herrian bizitzea da zozketan parte hartzeko baldintzetako bat

Gaur egun Abadiñon bizi direnek izango dute Eusko Jaurlaritzak Gantza-Zelaieta eremuan eraikiko dituen babes ofizialeko 54 etxebizitzaren esleipen-zozketan parte hartzeko aukera. Jose Luis Navarro alkateak esandakoaren arabera, Visesa erakunde publikoak

Udalak Eusko Jaurlaritzari saldutako lursailean eraikiko dituzte 54 etxebizitza

eraikiko ditu 54 etxebizitza. Udalak Eusko Jaurlaritzari saldu dion lursailean eraikiko dituzte Zelaietako etxebizitza berriak. Udal arduradunek azaldu dutenez, Eusko Jaurlaritzak oraindik ez du zozketa noiz egingo den jakinarazi, baina Jose Luis Navarrok aurreratu duenez, "udazkenean burutuko dute Gantza-Zelaietako zozketa, segururik". Eusko Jaurlaritzak oraingoz zehaztu eta jakinarazi duena zozketa arautuko duen kupo-sistema da: besteak beste, gaur egun herrian bizitzea da oinarrizko baldintzetako bat. ■ I.E.



Hauteskunde programa aurkeztu du Navarrok



Abadiñoko Independentiek taldearen programan "herria hobetzeko 70 proiektu" jasotzen dituztela azaldu du Navarro zerrendaburuak. Besteak beste, "jubilatuen dako odontologia zerbitzua martxan jartzea eta Udalean gazteei alternatibak eskaintzea helburu hartuko duen Gazteria Batzordea eratzea" dira Independenteen apustuak. Hiri-gintzari dagokionez, "Zelaieta auzoaren birmoldaketa integrala" eta Muntzaratz eta Traña-Matienan "hobekuntza lanak" proposatu dituzte. ■ I.E.



Durungaldean labor

Nabarra aldizkariaren ibilaldi literarioa, urteurrena ospatuz

Hilaren 14an, *Nabarra* aldizkaria Bizkaian egiten hasi zenetik urtea bete dela ospatzeko Astxikira irteera egingo dute (10:00etan, Atxartetik irtenda), hango nafar erresuma garaiko gazteluaren aztarnak ikustera. Izurtzako Etxaburu dorretxean, *Nabarraren* kolaboratzailea den Joseba Sarrionandiaren testu batzuk ere irakurriko dira Edorta Jimenezen eta Luis Berrizbeitiaren eskutik. Bazkarirako: 688 663 507

Mugitu Eguna egin dute asteen, AHTaren kontra

Ikastetxeetan ere AHTri desobeditu! lelopean Mugitu! Eguna deitu du asteen Mugitu! mugimenduak hainbat ikastetxetan. Atzo manifestazioa ere egin zuten Durangon.

AHT Gelditu Elkarlanak antolatuta, berriz, maiatzaren 11n, 19:00etan, Roberto Bermejok hitzaldia eskainiko du hizkuntza eskolan. AHTari eta krisi energetikoari buruz ariko da.



Erralde hiltegiak batzarra deitu du

Zapatuan batzarra deitu du Erralde hiltegiak, Traña-Matienako Errota kultur etxean. 16:30ean ipini dute hitzordua. Bertan hainbat gai jorratuko dituzte; esaterako, gaur egungo egoera azaldu eta etorkizuneko proiektuaren berri emango dute biharko batzarrean.

ATXONDO

Nekazaritza ekologikoaren bidetik ortuak garatzeko aukera edukiko dute laster atxondoarrek. Igerileku alboko lursail batean udalak partzela batzuk atonduko ditu ortu ludikoak ipintzeko, Urkiola Landa Garapenaren ekimen bati jarraituta. Iurretan egitasmoa martxan daukate.

Egitasmoak interesa sortu duela-eta, asteen batzarra deitu udalak informazioa emateko. Martxoan aurreinskripzio lako bat egin

Udalera hogeit hamar bano gehiago gerturatu da ortuen gaineko interesa agertuz

zuten, eta David Cobos alkateak azaldu duenez, hogeit hamar bano gehiago gerturatu zen galdezka.

“Oraindik lursailak eskuratu behar ditu udalak”, alkateak azaldu duenez, eta denbora tarte bat beharko da atondu orduko. Ortuen gaineko informazioa gura duenak denbora izango duela nabarmendu du Cobosek: “Oraindik galdezka gerturatu ez denak aukera edukiko du ortuak atondu eta lur arloak libre dauden biartean”. ■ A.Ugalde

Igerileku alboan atonduko dituzte aisialdirako ortuak

Urkiola Landa Garapenaren ekimenari buruzko batzarra egin dute asteen



Lursailak eskuratzeko tramiteak egingo ditu laster udalak.

IZURTZA

Txakurzulo jatetxea izandakoa esleituko dute

Gaurko udal bilkurara eraman dute kontratazio mahaiak proposaturiko Txakurzulo jatetxea izandakoaren esleipena. Udalean azaldu digutenez, eskaintza bakarra jaso dute esleipenerako. Udalbatzarrak gaur eguerdian oniritzia emanda, bost urterako esleituta geratuko da udalaren jabetzakoa den eraikina.

Eskatzaile bakar baten proposamena jaso dute, Udalean azaldu digutenez

Martxoko udalbatzarrean eraikina alokairuan ipintzeko baldintzak aho batez onartu aurretik, urtebete zerraman eraikinak hutsik; alokairuak udalarentzako dakarren diru-sarrerara berreskuratu gura dute esleipen honen bitartez. ■ I.E.

Eguneko zentroa, EAJren proposamenen artean



Atxondoko EAJk bere zerrenda eta hurrengo legegintzaldirako hainbat proposamen aurkeztu ditu. Miguel Angel Buruaga izango da berriro zerrenda burua, eta “enpleguan, etxebizitzan, nekazaritza sektorean eta gizarte ekintzan lan egiteko premia”

nabarmendu du. Proposamenen artean eguneko zentro bat sortu gurako luke EAJk, “jubilatuen egoitzagaz eta liburutegiagaz”. Horrez gainera, nagusiak auzoetatik herrigunera joateko garraio zerbitzua ipintzea da jeltzaleen asmoa. ■ A.U.

OTXANDIO

Salerosketa urbanistikoari oinarria finkatu guran

Udalbatzan onartu dute neurria, salmenta zein erosketa garaian prezioak zehaztea errazteko

Otxandioko Udalak herrian aurreikusitako erabilera urbanistikoaren ponderazioetarako koefizienteak zehaztu ditu. Hau da, etorkizunean egongo diren salerosketetarako oinarri bat edukitzea da helburua, salmenta edo erosketa bati zer prezio eman ahal zaion jakitea errazteko.

Erabilera urbanistikoaren ponderazioetarako koefizienteak zehaztu dituzte

Adibidez, ezarritako koefizienteei esker, desjabetza bat egiterakoan udalak oinarri bat izango du; baita babes ofizialeko etxebizitzari prezio bat ezartzerakoan ere, esaterako.

Kalkulua

Lurraren edo eraikinaren zelakotasuna, arau eta ordenamendu orokorren arabera ezarritako m²-aren salmenta balioa, exekuzioaren kostua eta eraikitako lurraren gaineko ondoriozko balorea izan dituzte kontuan kalkulatuak egiterako orduan. ■ M.O.

MALLABIA

Haurreskolan izena eman daiteke, hilaren 15era arte

Mallabiko haurreskolan izena emateko epea hasi dute maiatzaren 15era arte. Orain izena ematen dutenek irailetik aurrera jaso ahaliko dute zerbitzua. Informazioa telefonoz jaso daiteke (94317 20 03), baina beharrezko gestio dena egiteko haurreskolara bertara joan beharko dute interesdune, 07:30etik 17:00etara.

Mallabiko haurreskolak gela bi ditu: urte batera artekoak eta 1-2 urte bitartekoak; lehenengoan zortzi plaza daude libre, eta bigarrenetan hamahiru, baina lau plaza iaz 0-1 klasean egondakoek beteko dituzte. ■ J.D.

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK
Aukera ezazu hemen zure erregalua
Andra Mari kalea, 9 DURANGO Tel.: 94 681 50 17

katerin ardoak
iñaki uribe
saltzan
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltzan.com

"BODEGUILLA"
TRAÑA-MATIENA
Tfnou. 94 681 43 85

BERBAZ >

“Gizarteak politikoen artean errespetua ikusteko premia dauka”

Egindakoagaz pozik, alderdikieririk barik eta errespetuz jokatu dutela nabarmendu du Berrizko alkateak



Jabier Azpitarte •

- Berrizko alkatea
- Haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako aholkularia da

“Denbora oso garrantzitsua da proiektuei begira; ezin dira gauzak arrapaladan egin”

Aikatetzako azken txanpan, eguneroko beharretan dabil egunotan Jabier Azpitarte. Berrizko alkate izan eta gero hezkuntza mundura bueltatu aurretik, bere esperientziaren berri izan dugu.

Zelan bizi izan duzu Berrizko alkate izatea?

Lau urte bete izan dira. Uste dut elkarlanerako gunea eduki dugula udalean, eta herriarentzat lan egin dugula hamaika zinegotziok; hamaikok eduki dugu aukera proiektuak planteatzeko eta proposamenak egiteko. Hori herritarrek nabaritu egin dutela uste dut.

Politikoen artean nahiko hartu-eman ona daukazuela dirudi.

Herritar batzuek esan didate somatu dutela hori, eta nik eskertu egiten dut, ze gizarteak premia du politikoen artean errespetua ikusteko. Politikook ez badugu errespetuz jokatzeko eguneroko bizitzan, zelan eskatuko diegu errespetua beste batzuei? Errespetua lehen planoan jarri dugula uste dut, eta hori horrela eginda zailtasunez aurre egitea errazagoa izaten dela. Nik uste dut alderdikierietatik ihes egin dugula, eta lanean zentratu garela; batzorde informatiboak barik lan batzordeak izan dira gureak.

Krisiak zelako eragina dauka udalaren jardunean?

Egoera nahiko ondo kudeatu dugula uste dut. Diruak beti dauka eragina, baina ezin dut esan diru gehiagogaz askoz proiektu gehiago garatuko genituenik. Denbora oso faktore garrantzitsua da. Askotan pazientzia behar izaten da; ezin dira gauzak arrapaladan egin. Gogoari eta antsietateari mugak ipini eta zentzuz jokatzeko jakin dugula uste dut.

Hezkuntza azpiegituretan diru dezente inbertitu duzue.

1995ean eskola-mapa berria egin zenetik, Berrizen 16 urtera arteko hezkuntza garatzeko aukera egon da; inbertsioak

egon dira, eta jarraituko dute egoten. Demografian hazkunde handia izan dugu azken 20 urteotan; urtean 20 jaiotza izate-tik 80 edukitzera pasatu gara. Hori kontuan hartu eta astiro-astiro espazio fisikoak prestatu behar izan dira.

Kultura arloan ekitaldiak astebururo. Herri barruko bizimodua zelan ikusi duzu?

Egia da tokiak ez duela dena egiten, baina Kultur Etxea izateak aukerak eman ditu. Edukiontzia edukita edukiz bete behar da gero, eta arlo horretan, berriztaren artean potentzial handia dago: badaude hainbat gazte bertso arloan, musikan, interpretazioan... murgilduta, eta herritarrek sentsibilitate kulturala daukate. Gogo horri erantzuteko lan egin da kultura batzordean. Guzti horrek eragiten du kultur mugimendua herrian.

“Azpiegiturek badauzkagu; leku horietan herrigintza garatu behar da orain”

Datozen urteetan zelako premiak izango dira Berrizen?

Azpiegitura fisikoei dagokienez, nik uste dut Berrizen gaur egun ia-ia hornituta gaudela. Kirolerako, hezkuntzarako, kulturarako... badauzkagu lekuak. Orain erronka leku horien erabilera bultzatzea eta herri proiektu bat egitea da. Herrigintza garatu behar da azpiegitura horien erabilpen, gozamen eta sormenaren inguruan. Eraikuntzetan barik, zerbitzuetan lan egin beharko da datozen urteetan.

Erralderen hiltegi berriko proiektua atzeratu egin da. Ezkor egoitako motiborik badago?

Nik beti esaten dut lekuz aldatu gura duen lehenengoa Erralde dela. Inori trabarik egiten ez dioten lekura joan gura dute, eta ez da berdin ekintza garatzea toki berri batean edo zahar baten. Baina tramitazio batzuk espero

baino luzeago joan zaizkigu. Atera kontuak: 9 hektarea birkalifikatu behar izan dira hainbat jabereren lurak tartean egonda, ingurumen gaiak zaindu... eta, gainera, hiltegia ipintzeko lurra birkalifikatzen den lehen aldia da hau. Tramitazio epeak luze joan dira, oso luze, eta finantzazioaren epea bete egin da. Orain, obretarako lizentzia daukagula, berriro disposizio finantzarioa negoziatu behar dugu. Hori lortzean hasiko dira beharrak. Badakigu Durangoko hiltegia tokirik egokienean ez dagoela, baina, bitartean, auzokideekin elkarbizitza arrazional bat bilatu beharko dugu.

Ilegalizazioak direla-eta, zer irizki duzu hauteskunde aurreko giroaz?

Ez dut ulertzen, eta ez politika ikuspuntutik, gizaki bezala baino. Nik uste dut Bildu ez zela egon behar: Sortu egon behar zen; ez dut ulertzen zergatik ilegalizatu zuten. Barregura ematen dit norberak demostratu behar izateak norberaren inozentzia. Alderdi guztietako jendea ezagutu dut urteotan eta izugarriko pena ematen dit, askok konpromiso handiz eta ilusioz jardun dutelako. Ez dago eskubiderik. Eurentzat onena desio dut; ez dezatela etsi eta mantendu ditzatela euren asmo politikoak. ■ A.Ugalde

“Erraldekoko tramitazioak uste baino luzeago joan dira. Beharrak hasi arte, auzokideekin arrazoizko elkarbizitza bilatu beharko da”

ALMACENES ARRASATE

TIEN 21



Intxaurrondo, 12 behea
Tel.: 94 681 34 85
48200 DURANGO

PLAN RENOVE

Arrasate-Mondragon
Tel.: 943 77 13 52 - 77 00 34



 **2** URTA
1000 b/min
6 kg
A+ Saikapen energetikoa
GARBIGAILUA ALF 1106
265 -105 Plan renove 
160 €

 **2** URTA
1000 b/min
6 kg
A+ Saikapen energetikoa
GARBIGAILUA WAE20010EE
345 -105 Plan renove 
240 €

 **2** URTA
1000 b/min
7 kg
A+++ Saikapen energetikoa
GARBIGAILUA WAQ20361EE
425 -145 Plan renove 
280 €

 **2** URTA
1200 b/min
7 kg
A+++ Saikapen energetikoa
GARBIGAILUA WAQ2447PEE
450 -145 Plan renove 
305 €

 **2** URTA
1400 b/min
7 kg
A+ Saikapen energetikoa
GARBIGAILUA WM14E465EP
410 -105 Plan renove 
305 €

 **2** URTA
1200 b/min
8 kg
A+ Saikapen energetikoa
GARBIGAILUA F-2812
410 -105 Plan renove 
305 €

 **2** URTA
1400 b/min
8 kg
A+ Saikapen energetikoa
GARBIGAILUA L-74950-A
545 -105 Plan renove 
440 €

 **2** URTA
7 kg
KONDENTSAZIOA
B Saikapen energetikoa
LEHORGAILUA T-56840-L
435€ 

 **2** URTA
A Saikapen energetikoa
ONTZI-GARBIGAILUA SN25E206EU
360 -85 Plan renove 
275 €

 **2** URTA
GARBIGAILUA ROOMBA 531
370 € 

 **2** URTA
A Saikapen energetikoa
LABEA STA 1410 B/N PLAKA
360 -85 Plan renove 
275 €

 **2** URTA
A Saikapen energetikoa
LABE PIROLITIKOA HB-73AR521 INDUKZIOZKO PLAKA
899 -190 Plan renove 
709 €

 **2** URTA
A Saikapen energetikoa
INDUKZIOZKO PLAKA HK-633220 LABE PIROLITIKOA B-3781-5-M
950 -190 Plan renove 
760 €

 **2** URTA
1650 X 550 X 600
A+ Saikapen energetikoa
HOZKAILUA WTE 2511 W
295 -105 Plan renove 
190 €

 **2** URTA
2000 X 600 X 600
NO FROST
A+ Saikapen energetikoa
HOZKAILUA KGN 39A77
660 -105 Plan renove 
555 €

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. MCCko kooperatibistendako prezio bereziak. Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.

 **ETXERAKO ZERBITZUA. ZAHARRA ERAMANGO DA**
 **MERKAPAGO TOPATUZ GERO DAGOEN ALDEA BUELTATUKO DA**
 **GUSTURA GERATU EZEAN DIRUA BUELTATUKO DIZUGU**
 **+dendak-EKO "DURANGO" TXARTELA ERABILGARRI**

KULTURA[>]

ANTZERKIA > URTEURRENA

Antzerki tailerraren 25 urteak ospagai Kurutziaga ikastolan

Maiatzaren 20an, 22:00etan, eta 22an, 20:30ean, Durangoko San Agustinen eskainiko dute 'Txakur txikirik ez' irailetik Kurutziaga ikastolako antzerki tailerlean jardun duten gazteek. Maiatzaren 12an zabalduko dute tailerra sortu zenetik honako mende laurdenaren errepasoa egiten duen erakusketa.

Eraz aldizkarian orain hamasei urte argitaratutako argazkia da aldame-nekoa: hamar urte lehenago sorturiko Kurutziaga ikastolako antzerki tailerraren osasun onaren erakusle da irudia.

Hogeitabost urte bete ditu aurten Kurutziaga ikastolako antzerki tailerrak. Urteurrena dela eta, ikasturte honetan prestatu duten *Txakur Txikirik Ez* antzezlanaren emanaldiaz gainera, 25 urte hauei buruzko erakusketa eta bideoa ere osatu dituzte azken hileetan, urteurrenari begira.

Elena Fernandezek koordinatu duen erakusketan, mende laurden honetan tailerlean sorturiko antzezlanen argazkiak, emanaldietarako sorturiko elementu plastikoak eta tailerlean jorratzen duten sorkuntza prozesua eta ikuspegi pedagogikoa azaltzen duen Dabid Maezturen filmazioa ere izango da Durangoko San Agustinen ikusgai.

Azkeneko urteetan, *Urkuletaseko bainuetxea* edo *Jar dezagun mundua hankaz gora* lanak prestatu eta eskaini dituzte ikastolako antzerkigile gazteek. Aurten, maiatzaren 20an, San Agustin kulturean eskainiko dute irailetik prestatzen jardun duten lana.

Maiatzaren 12tik, San Agustinen, 25 urteoi buruzko erakusketa

Orain 25 urte, ordutik antzerki tailerraren koordinatzaile lanetan jardun duen Txotxek kontatu digunez, "hizkuntza normalkun-

tza plana" ipini zuen Hezkuntza Sailak martxan, eta mintzamenaren bultzatzeko hainbat egitasmo abiatu zituzten ikastetxeetan: bertso-gintza, irratigintza eta antzerkigintza taldeak sortu zituzten.

Antzerkigintza amateurrean zebilen Txotxek hartu zuen Kurutziaga ikastolako antzerki tailerra koordinatzeko ardura. Tailerlean parte hartzeko interesa zeukaten ikasleek izena eman eta zozketa burutzen zuten gero taldea osatzeko. Eskaintzak gazteengan zeukan interesa ikusita pentsatu zuten eskaintza zabaltea.

Aurtengo 'Txakur txikirik ez' lana osatzeko 44 ikaslek hartu dute parte

Hogeitabost urte hauen "metafora" moduan aurkeztu digute obra

Horrela lortu zuten, gero, hezkuntza curriculumeko beste arlo batzuekin —euskaraz, plastika eta musika arloekin— uztartzea antzerkigintza. Gaur egun, plastika, gorputz hezkuntza eta musika ikasgaien orduetan lantzen dute antzerkigintza, eta ikuskitzun bat aurkeztzen dute urtero.

DBHko bigarren mailako ikasleei zuzendurikoa izaten da antzerkigintza tailerra, eta berrogeitik gora gazte hartzen du urtero-urtero parte; 44 ikaslek aurten.



Hogeita bost urte hauen "metafora" legez aurkeztu digute maiatzaren 20an San Agustin kulturean eskainiko duten *Txakur Txikirik Ez* antzezlanak.

Titiritero talde bat da *Txakur Txikirik Ez* obra honen protagonista, eta "25 urtez herriz herri funtzioak eskaintzen egindako lanak merezi duen ala ez" da antzezlanen oholtzaratzen duten galdera eta hausnarketa.

Inprobisazioa, desinhibizioa, irakurketa eta abar jorratzeari ekiten diote ikasturte hasieran tailerlean, eta ondoren hasten dira obraren gainean lan egiten.

Argazkiak, atrezzoak, bideoak eta abar batu dituzte erakusketarako

"Antzerki tailerraren proiektua ez-sexista eta ez-lehiakorra da, eta, gainera, beste arlo batzuk lantzea ahalbidetzen duenez, zeharkako helburu pedagogikoak lantzen ditu", azaldu digu Txotxek proiektuaren koordinatzaileak. Hizkuntza eta talde giroa lantzeko, emozioak kaleratzeko, antzerkia baliabide aproposa dela erakutsi dute Kurutziaga ikastolan hogeita bost urteok. ■ I. Esteban

Ikastolako plastika gela bilakatzeko obrarako atrezzoak eta eszenografia sortzeko gune; antzezlanetan baliatzen dituzten hankapaluak erabiltzen gimnasioan ikasten dute, eta dramatizazioa eta musika ere jorratzen dituzte. Arteagazko eta sorkuntzagazko harra sortzen zaie ikasle askori guneotan.

Ikastolan barneratua, curriculumean jaxoa dute Kurutziagan antzerkigintza; arteagaz daukan lotura zuzenaz gainera, tailerra taldeko hartu-emanak lantzeko eta zeharkako hainbat gai lantzeko era ere bada. Ikuspegi pedagogikotik ere hainbat baliabide eskaintzen dituen gaia da antzerkia, onura eta emaitza nabariak dakartzana.

Antzerkigintza ikasleen arteko hartu-emanak lantzeko bide



POESIA > JARDUNALDIA

Pentsamenduaren Poesia zikloaren bigarren saioa, gaur

Juan Kruz Igerabideren berbaldiak zabaldu zuen aurtengo zikloa atzo; gaur jarraituko dute

Atzo burutu zuten Pentsamenduaren Poesia jardunaldien aurtengo lehenengo saioa, Durangon. Laugarren urtea da Durangoko Arte eta Historia Museoan ziklo hau antolatzen dutena. Aurten, San Agustinalde kaleko museoan barik, Kuruzesantu Museoan egin dute poesia jardunaldiaren iluntze bietako hitzordua.

Juan Kruz Igerabide idazle gipuzkoarrak *Parmeniada* izeneko berbaldiagaz zabaldu zuen Pen-

tsamenduaren Poesia jardunaldien laugarren edizioa atzo, eta, aurreko urteetan legez, soka instrumentuen doinuek lagundutako poesia errezitaldia izan zuten bertaratutakoek gozagarri; Jon

Kuruzesantu Museoak hartu ditu aurten jardunaldiaren saioak

Makuso bibolin-jotzaileak jardungo du gaur iluntzean ere poeten berbak laguntzen.

Maiatzaren 6rako, gaur iluntzerako, Manuel Cruz filosofoa gonbidatu dute berbaldia eskaintzera: *El pensamiento, entre la belleza y la utilidad* izenburuko hitzaldia eskainiko du.

Berbaldiaren ondoren euren olerkien irakurraldiak egitera etorriko dira Edorta Jimenez, Josune Muñoz eta Jose Luis Padrón idazleak, eta bibolinagaz lagunduko ditu Jon Makusok.

MAIATZAK 6

Berbaldia
Manuel Cruz
El pensamiento, entre la belleza y la utilidad

Errezitaldia
Edorta Jimenez
Josune Muñoz
Jose Luis Padrón

Bibolina: Jon Makuso

NON: Durangoko Kuruzesantu Museoan,
ORDUA: 19:00etan



‘El pensamiento, entre la belleza y la utilidad’ berbaldia, hasteko

Orain lau urte, antolatzaileen berbetan, “pentsamenduaren, arrazoimenaren arabera sortu eta ordenatutako berbak poeta eta pentsalariaren ahotik zuzenean jasotzeko aukera” eskaintzeko asmoz antolatu zuten jardunaldia finkatu egin da Durangon; bere lekua egin du laugarrenez. ■ I.E.



J.M. Urrutia, ‘Txotxe’ Irakaslea

Umeak atarian jolasean

Iparraldeko sasi-negutik ihesian edo, Mediterraneorantz abiatu naiz. Ulisesen askara, kulturaren sehaskara. Bere urdintasunean jakintasuna, edertasuna topatzen saiatu naiz, eta bere etxe zurietan argitasunaren bila ibili naiz. Bidaia guztietan bezala, joan egiten dena bueltatu egiten da; Ulises bera ere bai.

Etxera heldu aurretik, geldiu netxo bat egin beharko dut euskal herritar askok bezala, zoritxarrez. Goizeko hamarrak dira, eta kartzela aurrean nago; eguraldia hala moduzkoa da, baina txoriak gogora ekartzen digute udaberriaren gaudela. Txoriekin batera, bi ume “tronpa” batekin jolasten ari dira atarian; txoriak bezala, aske. Nik erlojuari behin eta berriro begiratzen diot, ea noiz deitzen gaituzten, eta nire begiek ez dute zerekin entretenitu umeen jolasarekin ez bada.

Ez dute espazioa errespetatzen, berdin zaie atari aurrea, tinbrea duen ate aurrea, espaloi txikia zein aurrean duten parkina. Sarreran, eskuineko horman, kaligrafia dotoreko hizkiek kartzela zein urtetan eraiki zen, nor zen urte hartan erregea eta nor zen justiziako ministroa gogora ekartzen digute. Beherago, kartzelak, presoek eskubide kulturalak zein pertsonalak bermatu behar dituela ere bai.

Funtzionarioak izenak oihukatzen hasten dira; “Por fin!”, nire bisitaren txanda hastera doa. Umeak kanpoan gelditu dira, jolasten, nahi duten tokian. Barrurantz noa, eta eskuineko horma begiratzen dut, eta gero, umei itxaroten, zenbat denbora egongo diren galdetzen diot nire buruari.

Nire txanda bukatzen denean, nire aurrean ditut umeak berriro ere jolasean, nahi duten tokian; ezeri erreparatu gabe, funtzionariorik ez balego bezala. Jarraitzen duten bakarra “tronparen” norabidea da. Kotxea hartu eta banoa aurtengo bidaiari amaiera ematera, eta ume horien “tronpan” Mediterraneoan baino argi gehiago topatu dudala esan behar dizuet.

MUSIKA > EMANALDIA



Nacho Vegas musikaria bakarkako bosgarren diskoagaz Plateruenean

Datorren barikuko Durangoko Plateruena kafe antzokiko eskaintza osatzen dute Nacho Vegasek eta Refree taldeak

Refree taldeagaz eta Fernando Alfaro kantautoreagaz batera bere azkeneko lana Marxophone zigiluagaz autoekoitzi duen Nacho Vegas kantautore asturiarraren kontzertua dago maiatzaren 13rako Plateruenean iragarrita. Refree taldeak ere joko du Durangon, gainera, datorren barikuan.

La zona sucia diskoa aurkeztera dator 90eko hamarkadan Manta Ray taldean jardun zuen Xixongo musikaria. Bakarkako bosgarren lana du Nacho Vegasek *La zona sucia* hau, eta bezperan Bartzelonan jota eta biharamu-

nean Burgosen jo aurretik eskainiko ditu kanta berriko doinuak eta letrak Durangon.

Zigilukide duen Refree taldeak ere joko du Vegasen aurretik

Maiatzaren 13an, 20:00etatik aurrera, eskainiko du emanaldia

‘La zona sucia’ diskoa aurkeztera dator Nacho Vegas Plateruenera

Gogoeta sakonak, sarritan ironikoak eta ilunak, kanten letretan

Dylan edo Cohen lako musikariak miresten dituen kantautore honen musikan, doinuak edo ahots urratua baino esanguratsuagoak dira sarritan kantetan kontatzen dituen istorioak: letrak. Gogoeta sakonak, sarritan ironikoak eta ilunak, islatzen dituzten letrak osatu ditu Nacho Vegasek bakarkako bosgarren disko honetarako ere, eta zuzenean eskainiko ditu Durangon. ■ I.E.

ZINEMA >

Autismoari buruzko film dokumentala Elorrioko Iturrin

Hilean Behin ekimenaren barruan, Sandrine Bonnaire aktore frantziarrak zuzenduriko dokumentala da maiatzaren 12an, 19:30ean hasita, Elorrioko Iturri kultur etxean emango dutena. *Sabine du izena* dokumentala, bere ahizpa autistari buruz Bonnaire aktoreak zuzenduriko lana da. Aktore ezagunak, ahizpari zuzenduriko omenaldia izan dadin burutu zuen Elorrioko emango duten lana.

Bere ahizpari buruz 25 urtean batutako artxiboagaz osatu du Sabine Bonnairek dokumentala. “Arterako dohain berezia zeukan neska sentiberaren” egoerak psikiatrikoan igarotako bost urteetan zelan txarrera egin zuen erakusten du lanak. ■ I.E.

‘Sabine du izena’ maiatzaren 12an, Iturri kultur etxean

Sandrine Bonnaire aktoreak zuzendu du dokumentala

ANTZERKIA > JAIALDIA

Antzerki zale eta egile diren gazteen hileetako lanaren uzta

Markeliñe antzerki taldeak laugarrenez kudeatu duen **Zugan Ni** jaialdiaren barruan, Iurreta, Durango eta Elorrioko gazteek sorturiko lanak ikusgai maiatzaren 11, 12 eta 20an



Orain hiru urteko Zugan Ni jaialdian ikusgai izan zen antzezlanetako bat. J.F.

EMANALDIAK

Maiatzak 11, Arriolan
20:00etan, Elorrioko taldearen *Izuaren aurpegia* eta Iurretarren *Brionia* antzezlanak.

Maiatzak 12, Zornotza Aretoan
20:00etan, Zornotzako taldea-

ren *Dantza zikina* eta Igorrekoen *Dopaminomanos* antzezlanak.

Maiatzak 20, Zornotza Aretoan
20:00etan, Zornotzako taldearen *Zoraida Velasco en un atasco* antzelana.
21:30ean, Zugan Ni lehiaketaren sari-banaketa ekitaldia.

LEHIAKETA > IKUS-ENTZUNEZKOA

Euskal Herriko zein nazioarteko ehundik gora lan jaso dituzte www.nontzeberri.com kultura webguneak eta Bilboko Zinema Fantastikoaren Jaialdiak antolatuta duten Nontzefilmak lehiaketan. Maiatzaren 7an, Bilbon, lehiaketaren finalean, erakusteko hautatu dituzten lanen artean Elorrioko Logela Multimedia taldearen *Kroma Koman* lana dago.

‘Nontzefilmak’-en finalerako aukeratu dute Logelaren lana

Flash programagaz osatutako lanen sailean hautatu dute elorriarren lana, berezitasun bezala lanak Internet bidez bidali ahal izatea daukan lehiaketan.

Ez da hau Logelak lehiaketa honetan parte hartzen duen lehenengo aldia, eta lehenago ere hautatu dute euren ekoizpenen bat finalerako. Aurten, Break On Stage jaialdiaren promozio kanpainarako baliatu duten bideo sorkuntzan oinarrituta egin duten *Kroma Koman* lana bidali dute.

“Irudiekin jolastuz egoera errealak surrealismora eramaten” dituztela dio Imanol garaizabal Logelako kideak, eta aurreko lanek legez, estetika oso markatua daukala honek ere: “Plano guztiek daukate ukitu infografikoa”.

Lehiaketara aurkeztu duten lanaren interpretazioa eginez, “gure buruaren jabe garela pentsatzen dugu, baina kontrolatu eta manipulatuak gara”, dio Garaizabalek. Ikusle bakoitzaren interpretaziora oso zabalik geratzen da, dena den, *Kroma Koman*. ■ I.E.

H amahirutik hamazortzi urtera arteko gazteengan arte sorkuntzagazko eta antzerkiagazko gustua sustatzeko, Markeliñe antzerki talde zornotzarak laugarrenez martxan ipinitako egitasmoa da Zugan Ni. Antolatzaileen berbetan, “gazteak eurak arduratzea sorkuntza prozesu guz-

tiaz” da proiektuaren zutabea. Antzerkigintzan diharduten eta esperientzia zabala duten begiraleen laguntzagaz jarduten dute saioetan gazteek.

Ekimena “gazteen adierazpenerako plataforma moduan” aurkeztu dute antolatzaileek: antzerkiaren bitartez, gaur egungo munda ezagutzeko aukera eskaintzen die Zugan Ni ekimenak gazteei.

Ekimena, “gazteen adierazpenerako” modulegez aurkeztu dute

Antzerkigintza prozesu guztia barru-barrutik bizi izan dute gazteek

Errealitateari gazteek zelan begiratzen dioten erakusten duten adibideak dira, esaterako, aurreko edizioetan gazteek euren obretan jorratutako gaiak; tratu txarrak, emakumearen irudia gizartean... Gazteek euren inguruneagaz eta errealitateagaz daukaten ardura isla dira antzerkiagaz esperimendatuta sortutako lanok.

Aurten ere gazteek barru-barrutik bizi izan dute antzerkigintza sei hilabeteotan: sorkuntza

prozesuak beragaz dakarren guztia bertatik bertara ezagutu dute, obra bat ekoizteko kontuan hartu beharreko alderdi guztiak ezagutzuz: prestaketaren alderdi guztiak landu dituzte. Taldeagazko eta proiektuagazko erantzukizuna euren gain hartu dute parte hartu duten gazteek, eta Durangaldea eta Arratiako oholtzetan lanak eskaintzen dihardute orain.

Antzezlan emanaldiak

Hiru emanaldi egin dituzte maiatz hasieran Durango, Igorre eta Iurretan, eta beste zenbait emanalditan eskainiko dituzte maiatzaren 11, 12 eta 20an: Elorrioko taldearen *Izuaren aurpegia* eta Iurretarren *Brionia* lanak izango dira ikusgai maiatzaren 11n, 20:00etan, Arriola antzokian.

Ondorengo bi saioak eta sari banaketa ekitaldia, berriz, Zornotza Aretoan burutuko dituzte: Maiatzaren 20an, 21:30ean, egingo dute sari-banaketa; aurretik, maiatzaren 12an, areto horretan eskainiko dituzte Igorre eta Zornotzako taldeek *Dantza Zikina*, *Dopaminomanos*, eta *Zoraida Velasco pitonisa en un atasco*. ■ I.E.

Elorriarren ‘Izuaren aurpegia’ eta Iurretarren ‘Brionia’, Arriolan

Logela Multimedia elorriarren ‘Kroma koman’ Nontzefilmak lehiaketan

Bilbon emango dituzte bihar finalerako hautatu dituzten lanak, FANT jaialdiaren barruan



Finalerako hautatua izan den Logelaren lanaren grabazioaren une bat.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

DF BERTSOZALE ESKOLA 2011 BERTSOALDI KOMENTATUAK
Lau egunetako matrikula: 10euro.

Maiatzak 13 22:00etan
NACHO VEGAS + REFRE
HEINEKEN MUSIC SELECTOR
KONTZERTUA. Sarrera: 12(+gastuak)-16euro.

Maiatzak 14 22:00etan
ANGELIC UPSTARS+ THE DIRTY BROTHERS + BASTARDS ON PARADE
KONTZERTUA. Sarrera: 13-15euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

www.plateruena.net

beti bizi

XABIER AMURIZA-KEPA JUNKERA-LEIOA KANTIKA KORALA

Maiatzak 7 • 22:30
12-15 euro

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

Gremioen gida

ELEKTRONIKA

URBASA ELEKTRONIKA
TELEKOMUNIKAZIOAK

SALMENTA ETA KONPONKETA • TB • SOINUA • BIDEA • IRRATIA •
KOMUNIKAZIOA • ANTENA KOLEKTIBOAK • SATELITE BIDEZ • ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13 • Durango
Tel.: 94 681 33 03 • Fax: 94 620 15 80
urbasa@urbasatel.com
www.urbasatel.com

Panasonic 

LORAZAINTZA

Jardines Patxi Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

AROTZERIA

EGUIA S.L.
AROTZERIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653



Tabika kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com

ARGIZTAPENA

ARGIZTAPEN TRETIKAK

MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com



DEKORAZIOA

a-metz
[barne] diseinua

Diseinua - Dekorazioa
Ideiak - Proiektuak 3D
Legalizazioak - Erreformak
Gremioen koordinazioa
Altzariak - Osagarriak

www.a-metz.com

Ibaizabal, 3A behea • Tel.: 94 681 84 81 • Durango



GARBIKETAK

AZKARGI

GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfombrak

Goleta, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15

ITURGINTZA

berriozabaleta
Iturgintza • Berokuntza

gremioak koordinatzen
Jose miguel acedo

mug.: 609 381 887 • tel./fax: 94 623 18 55
berriozabaleta@yahoo.es
48230 Elorrio (Bizkaia)

sagasta
ITURGINTZA

Iñaki Urien Madrazo
Industria Azpiegiturak

GASA - ITURGINTZA - BEROGAILUA

Sagasta auzoa, Arbe Goiko baserria
48220 Abadiño (Bizkaia)
Mug.: 628 59 98 24

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

Dolagueen katea 3 • ABADIÑO
Tel.: 94 681 44 74
Faxa: 94 681 63 74
urtiaga@iterra.es

urtiaga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZIILEJO, ZOLADIURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENAK

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com



Arriandi
ITURGINTZA

Klimatizazioa
Kalefazioa
Iturgintza
Gasa

Arriandi, 16 - behea, 3 atea
Mugikorra: 607 24 58 54
Faxa: 94 681 61 58
48215 Iurreta

Baimendun instalatzailea

KIROLAK >

“Guretzako saria da maila bat gora igotzea; egindako lanaren ordaina”



Azken asteetan entrenatzaile legez ere aritu da Ortzi Gisasola mallabitarra.

Euskal Ligan ezustekoa eman du Mallabiak. Urte bakarrean Nazional B mailarako txartela lortu dute mallabitarrek. Bertako jokalaria den Ortzi Gisasolagaz berba egin dugu; asteen entrenatzaile ere badabil.

Zazpi urtean lau igoera lortu dituzue, espero al zenuten?

Ez. Lehenengo bi-hiru urteak probatzearen hasi ginen. Pixkanaka, emaitza hobekia lortuz joan ginen, eta igoera lortu genuen. Ondoren, urtero prozesu berdina errepikatu da; lehendabiziko itzuli onak egin ostean, igoeraren bila joan izan gara. Aurten, mantentzea izan da hasieratik gure helburua; maila berria izan da, eta sei talde jaisten direla kontutan hartuta, gaitz ikusten genuen. Joaneko itzuli ona egin genuen, eta goian geundenez, gure aukeretan sinetsi genuen. Hiru jardunaldiren faltan, igoera matematikoki ziurtatu genuen eta orain, txapelketaren bila goaz.

Euskal Ligan, lehenbizikoan lortu duzue igoera. Zeintzuk izan dira gakoak?

Joko aldetik, ez gara korapilatzen, ez gara Bartzelona; baloia mugitu, posizioa... Guk kontraerasora jokatzen dugu; atzean itxaron eta ondo defendatu. Jokalari azkarrak eta onak ditugu, eta

horretaz baliatzen gara, batez ere.

Ez dugu formakuntza berezirik jaso areto futboleant; ez dugu estrategiarik edo taktikarik lantzen. Gutxi gorabehera, jokatze modu antzekoa dugu, eta horretaz baliatzen gara.

Alde handia igarri duzue maila artean?

Bai. Euskal Ligan partiduak irabazteko ondo jokatu behar izan dugu. Beste maila batzuetan, ostera, txarto jokatuta ere irabazteko aukerak izan ditugu. Aurten ez, akatsak ordaindu egin izan ditugu. Lehenetsuneko mailan ere partidu gaitzak jokatu behar izan genituen.

Nazional B mailara aldaketa igarriko duzue? Zer helburu duzue?

Datorren urtean maila ez galitzen saiatuko gara. Horretarako, mailara egokitu beharko dugu, lehenago: bai joko aldetik bai egitura aldetik. Kirol arloan mantentzen bagara, bestean ere lortuko dugula uste dut.

Durungaldeko hiru talde arituko zarete Nazional B mailan. Ze maila dago eskualdean?

Ona. Orokorrean talde onak daude eta aurkari gogorak izan dira euren aurka jokatu izan dugunean. Zaletasuna ere badago, batez ere Durangon.

Mallabiak eta Sasikoak gazte talde bana dute. Harrobia sustatu guran zabilzate?

Mallabiko gazte gehienek futbolarera jokatzea dute nahiago. Hori dela-eta, gure jokalaria gehienak berriztarrak eta ermuarrak dira. Taldea mantentzea eta indartzea da gure helburuetako bat; Nazional B mailan aritzeko beharrezkoa da gazte taldea edukitzea, gainera. Gutxienez, hiru gazte izan behar ditugu taldean gurekin.



ORTZI GISASOLA

Jaioterria

Mallabia

Adina

30 urte

Ibilbidea

2004-2011

Mallabia Bastida taldeko jokalaria
(Lau igoera lortu dituzte zazpi denboralditan)

Jardunaldi honetan Inter liderraren aurka jokatuko duzue...

Gu irabazteko asmoagaz kanxaratuko gara; presiorik ez daukagu, gainera. Txapelketa irabazteko geratzen zaizkigun bi partiduak irabazi behar ditugu.

“Jokatze modu antzerakoa dugu denok eta horretaz baliatzen gara”

Jokalari aritzeaz gainera, entrenatzaile lanak ere egin dituzu, azkenaldian?

Bai, hala da. Azkeneko bost partiduetan entrenatzailea izan naiz; ez dut jokatu, ordea. Gustura ibili naiz, kideek errespetatu naute, eta emaitza onak lortu ditugu. Orain arte Juan Carlos egon da, baina ezinezkoa zitzaion leku guztietara heltzea.

Datorren denboraldirako aldaketak egin behar dituzue, ezta?

Nazional B mailan aritzeko, taldea egokitu egin beharko dugu. Derrigorra da entrenatzaile federatua izatea, eta guk ez dugu; bila gabiltza. Lehendakari berria izango dugu, Miren Aja. Gure asmoa, orain arteko filosofiarekin jarraitzea da; igoera guztiok gozatu nahi dugun sari bat da, gure lanaren ordaina izan da-eta. ■ A.Maldonado.

Bihar, mendi ibilaldia Berriz Ere elkarteak antolatuta

Hileko lehenengo zapaturu legez, mendi ibilaldia egingo dute Berriz Ere elkartearen eskutik. Bihar goizeko ibilaldia-iren irteera goizeko 08:00etan izango da, tren geltokiko plaza-rik irtenda. Hortik, Muruako harrobira abiatuko dira ibiltariak; Gorbea, Iriñaoko bordak eta Aldamiñape zeharkatu ostean, harrobira itzuliko dira ibiltariak. Beraz, ibilbidea zirkularra izango da.

Antolatzaileen arabera, eguraldiak ibilbidea baldintzatu dezake; edozelan ere, ibilaldia Gorbeako Parkearen inguruan izango dela ziurtatzen dute. ■ A.M.

Maria Bazan dominaren bila Formenteran

Maria Bazan judoka durangarrak euskal selekzioa ordezkatu du asteburuan Formenteran (Balear Uharteak) jokatuko den Espainiako Txapelketan; 15 urtez azpikoaren mailan lehiatuko da Bazan. Errenterian jokaturiko Euskadiko Txapelketa irabazi ondoren lortu zuen durangarrak Formenteran lehiatzeko txartela.

Gaur hasita, igandera arte iraungo du Espainiako Txapelketa. Durangarrak 13 urte ditu, eta horrelako lehia batean parte hartzen duen lehenengo aldia izango da. Eider Vivanco taldekidea txapelketan parte hartzeko atarian geratu zen; hirugarren amaitu zuen Euskadiko Txapelketan. ■ A.M.

Mallabiko VIII. Biharko Izarrak azken txanpan

Mallabiko Biharko Izarrak pilota txapelketa azken txanpan sartu da. Pilotari guztiak elkarren aurka lehiatzen diren ligaxka amaitzeko zortzi kanporaketa (talde bakoitzeko lau) geratzen dira. Bi taldeetako zortzi pilotari onenek finalerdiak jokatuko dituzte ondoren.

Datorren egunean, hilaren 12an, Azpiri-Untoria bikoteak Ezkurdi-Perezaren aurka jokatuko du; gaueko bigarren partiduan, Victor-Castillo bikotea Ojuel eta Aretxabaleta pilotarien aurka lehiatu beharko da. 21:30ean hasiko da lehenengo partidua. ■ A.M.

Kulturalak 2. B mailarako igoera fasea jokatu du

Arenas taldeari 0-1 irabazita, Kulturalak matematikoki ziurtatu du fase hori jokatzeko. Bihar Zornotza liderraren kontra jokatu du.



Bost urte itxaron behar izan ditu Kulturalak 2. B mailarako igoera play offa jokatzeko.

Bi jardunaldiren faltan, Kulturalak matematikoki ziurtatu du 2.B mailarako igoera fasea jokatzeko. Bost denboraldi igaro dira hori azken biderrez lortu zuenetik; 2004/2005 denboraldian, play off-a jokatu, eta 2.B mailara igotzea lortu zuen talde durangarrak.

Igoera fasea jokatu dutela ziurtatuta, durangarrak hirugarren postua lortzeko asmoagaz lehiatuko dira, Axier Intxaurreaga entrenatzailearen arabera: "Oso pozik gaude egindako denboraldiagaz. Urte osoa daragan goiko postuetan, eta 3. mailan hori lortzea oso gaitza da". Iritzi berekoa da Ricardo Txinturreta, Kulturalako kirol zuzendaria: "Maila honetan aurrekontu handia duten taldeak daude, eta meritu handia du guk lortu duguna lortzek".

Intxaurreagak bigarren denboraldia egin du aurtun entrenatzaile, eta bere berbetan, lorturikoa "izugarria" izan da: "Iaz denboraldi ona egin genuen, eta aurtun hobe egin dugu, oso

pozik gaude" dio entrenatzaile berriztarrak.

Liga amaitzeko bi partidu geratzen zaizkio Kulturalari. Zapatuan durangarrek Zornotza liderra hartuko du Tabiran. Intxaurreagaren berbetan, ahalik eta itxura onena ematen saiatu-

ko dira. "Irabazten ahaleginduko gara, oraindik liga hirugarren postuan amaitu dezakegulako". Jon Conde eta Garikoitz Basaurik ez dute jokatu, Intxaurreagak aurreratutakoaren arabera. Ostean, Aurrera Vitoriaren aurka jokatu beharko dute durangarrek. 36. jardunaldian Getxoko Arenas Club taldeari 0-1 irabazi ostean eskuratu zuen igoera fasea jokatzeko txartela Kulturalak. Lehen zatia amaitzeaz zela Iban Espinosak sarturiko golari esker poltsikoratu zituzten durangarrek hiru puntuak.

Gazteak Ohorezko Mailara
Bestalde, Kulturalako gazte taldeak Ohorezko Mailara igotzea lortu du aurtun; horrela, maila gorenean arituko den seigarren talde bizkaitarra izango da. Eliterra itzultzea lortu dute, beraz. Igoera lortzeko gogoz aritu behar izan zuten durangarrek. Bina berdindu zuen Athletic Bren aurka; 0-2 galtzen hasi ondoren, buelta eman zioten Kulturalako gazteek. ■ A.M.

Intxaurreaga: "Ia denboraldi osoan egon gara goiko postuetan, eta hori oso gaitza da".

Zapatuan, 17:30ean, Zornotza liderra hartuko du Tabiran Kulturalak.



Ricardo Txinturreta
Kulturalako kirol zuzendaria

Bigarren denboraldia duzu kirol zuzendari lanean. Zer moduz moldatu zara?

Iazko denboraldia kontaktua hartzeko izan zen. Aurtengoa, ostera, denboraldi zoragarria izan da.

Etxeko jokalariren eta jokalariz gazteen aldeko apustua egin duzue bi urteotan.

Beti ahalegindu gara etxekoe-kin jokatzeko; hala ere, ez da erraza. 3.mailan talde handiak daude, eta maila handia behar da bertan jokatzeko. Hala ere,

hor dugu Iñigo Karroren adibidea. Aurrera begira, 4-5 gazte gehiago igotzea da gure helburua. Gazteen artean batzuk oso onak datoz, gainera.

Egindako denboraldiagaz, zaleen ilusioa berreskuratzea itxaroten duzue?

Nahiko kezkatuik gauzka. Taldea esfortzu handia egiten dabil, baina Tabirara betikoak baino ez dira hurbiltzen. Taldearentzat ona da zaleen berotasuna igartzea; laguntza ekonomiko ere ondo dator. ■ A.M.

Iker Saenz De La Cuesta
•Areto futbol entrenatzailea



Sailkapena duda-mudan

Aspalditik dakigu Nazional A mailatik zazpi talde jaitsiko direla; orain, jardunaldi gutxiren faltan, jaitsiera horien eragina aztertu behar da. Jadanik ziurra da Allerruk eta Sasikoak maila galduko dutela; oraindik, Sestao, Legutio, Ibarra, Atenea eta Area 99 euskal taldeak ez dira jaitsieratik salbu. Sestao eta Legutio dira gaitzen dutenak jaitsiera saihesteko, eta datorren jardunaldian batak bestearen kontra jokatu dute. Guda horretan, Euskal areto futbolarentzat hoberena Castrok eta Rompien tek beraien partiduak galtzea izango litzateke, horrek jaitsierara bultzatuko litzateke, gure taldeen mesederako. Momentuz, bi "bultzakada" eragingo ditu Nazional B eta Euskal Ligan Sasikoa eta Allerruren jaitsierak, eta gero eta Euskal talde gehiago jaitsi, gero eta "bultzakada" gehiago (gehienez, lau izango dira). Elorriok ez du arazorik Nazional B mailari eusteko, baina Euskal Ligan, Kurutziagak eta Sasikoa B-k oraindik arazoak dituzte maila mantentzeko. Sasikoa B-k hiru partidu jokatu behar ditu oraindik; mailari eusteko nahikoa du garaipen bakarrarekin. Kurutziagak, aldiz, bere bi partiduak irabazita ere, arierioen emaitzei itxaron beharko die. Espero dut aurtengo liga "berezi" (Federazioaren neurrien eraginez) honek bukaera ona izatea, eta Anbotok laster gure taldeen berri on asko kontatu ahal izatea.

Adituarentxokoa



Uriarte izan zen garaile iazko txapelketan. K.Aginako

Sanprudentzioko finalak bihar jokatu dituzte

Seniorretan, Berasaluze IX.a-Mitxelena eta Bengoetxea-Altuna bikoteak lehiatuko dira

Arratsaldeko 17:00tik aurrera, Sanprudentzio Txapelketako finalak jokatu hasiko dira bihar. Guztira, hiru mailatan jokatu dituzte partiduak.

Senior mailan, Berasaluze IX.a berriztarrak eta Mitxelenak osaturiko bikotea Bengoetxea-Altuna bikotearen aurka lehiatuko da. Lehenengo bikoteak Uriarte abadiñarrak eta Ajuari-gerrak osaturiko bikoteari irabazi behar izan zion finalerdietan. Bestalde, kadete eta gazte

mailetan Amezketa eta Burlatako bina bikote lehiatuko dira; kadeteetan, Altuna-Gofi Garaio-Aldunzinen aurka; gazteetan, berriz, Agirre-Apeztegia eta Gallurralde-Tolosa. ■ A.M.

Kadeteetan eta gazteetan Amezketa eta Burlatako bina bikote lehiatuko dira

R7 txapelketetako bigarren jardunaldia jokatuko da

DRTk hiru partidetak bakarira irabazi zuen joan zen jardunaldiko neurketetan. Elorriok, berriz, bi partida irabazi eta bi berdindu zituen.



Partidu guztietan gogoz aritu zuren DRTkoak. Kepa Aginako

Maiatzean zehar, Euskadiko R7 txapelketak jokatuko dira. Joan den astean lehenengo jardunaldia jokatu ostean, DRT senior mailako A taldean bosgarren postuan dago sailkatuta. Maila horretako bigarren jardunaldia Donostian jokatuko dute, bihar, arratsaldeko 15:30etik aurrera. Talde durangarreko entrenatzaile den Aratz

Gallastegiren berbetan, "aberasgarriak" dira horrelako txapelketak

Gallastegiren berbetan, "txipa aldatzeko" balio dute mota honetako txapelketak. Urtean zehar egiten diren ligetan ez legez, txapelketa hauetan zazpi jokalariko taldeek jokatzeko dituzte partiduak. Gallastegiren arabera, ikasteko balio dute horrelako ekimenek: "Jokalarientzat zein guretzat aberasgarriak dira; baita 15 jokalariko errugbirako ere".

Elorrio bigarren dago sailkatuta, Senior mailako B multzoan

Donostiako Atletico taldearen aurka irabazi zuten aurreko jardunaldiko partidu bakarria durangarrek, 17-19 emaitzagaz. Bera Bera eta Hernani taldeen kontra galdu egin zuten. Bihar, Ordizia, Getxo eta Gernikaren aurka lehiatuko dira Gallastegiren mutilak. Bestalde, Elorriok joan den astean jokaturiko lau partiduetako bi irabazi egin zituen. Senior mailako B taldean dago Elorrioko taldea. 30 urte bete ditu aurtien Elorriok. ■ A.M.

Durango eta Atxondo buelta ematen saiatu beharko dira

Bizkaiko Herri Artekoan denarikoko emaitzak lortu dituzte eskualdeko taldeek. Bigarren faseko itzuliko jardunaldia jokatuko da aste honetan, eta, aurrera egiteko, Durangok eta Atxondok buelta eman beharko diote emaitzari. Joaneke itzulian lurretak 2-1 irabazi zion Durangoko taldeari. Atxondok, ostera, 1-2 galdu zuen Urdulizen kontra. Mallabiak aldeko du haizea, Arrigorriagari 2-1 irabazi ondoren. Itzuliko partiduetan lehia ziurtaturik egongo da, herri guztietako taldeek baitituzte aurrera egiteko aukerak.

Zesta puntan, Durangok gaitz du aurrera egitea

Bestalde, zesta puntan, porrot latza jaso zuen Durangok; 3-0 galdu zuen Gernikaren kontra. Gaitz izango du talde durangarrak aurrera egiteko. Hiru partiduak irabazi behar izateaz gainera, tanto alde handiagatik irabazi behar ditu-eta. Durangon jokatuko dute itzuliko partidua. ■ A.M.

Agenda

- FUTBOLA**
HIRUGARREN MAILA
Kulturala - Zornotza
Zapatuan, 17:30ean, Tabiran
OHOREZKO MAILA
Berriz - Sodupe
Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun
LEHENTASUNEZKO MAILA
Elorrio - Ugao
Zapatuan, 17:00etan, Eleizalden
- SASKIBALOIA**
LEHENGO ERREGIONAL BEREZIA
Tabirako - La Salle
Zapatuan, 16:00etan, Landakon
LEHENBIZIKO ERREGIONALA
Anbotopeko - Zamudio
Zapatuan, 18:00etan, Tabiran
- ARETO FUTBOLA**
EUSKAL LIGA
Sasikoa B - Goierrri
Zapatuan, 19:30ean, Landakon
Kurutzlaga - Ortziri
Zapatuan, 17:30ean, Landakon
- PILOTA**
BIHARKO IZARRAK
- Azpiri - Untoria / Ezkurida - Perez
- Victor - Castillo / Ojuel - Aretxabaleta
Eguenean, 21:30ean, Mallabiko pilotalekuan

berbaroko umeak olgetan

Gozatu olgetan euskeraz berbetan!

UDAN OLGETAN

UDALEKUAK

Durangoko herri kanpamentuak

Izena emateko epea:

maiatzaren 16a arte!

3ER 3ARC

AMALURRA >



Seinaleztatu berri diren ibilbideak ezagutzeko irteerak Urkiolan

Lehenengo irteera domeka honetan egingo dute; goizeko 09:30ean ipini dute hitzordua Dimako Oba auzoan

Material baten bitartez, bisitariek euren kabuz egin dezaketen ekintza da programa autogidatua

Ibilbideetaz gainera, “txoko historiko, ezezagun zein magikoetara” hurreratzeko aukera eskainiko du Aldundiak datozen asteetan

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak hainbat ekintza antolatu ditu datozen asteotarako, Urkiolako Parke Naturala hobeto ezagutzeko helburuagaz. Lau irteera burutuko dituzte, eta lagun taldeentzako programa autogidatua ere prestatu dute.

Lehenengo irteera domeka honetan bertan egingo dute. Goizeko 09:30ean Dimako Oba auzoan ipini dute hitzordua, eta 12,5 kilometroko ibilbidea izango dute aurretik, Artaun, Mugarrikolanda eta Leunganatik igarota, leku berean amaitzeko; ibilbidearen zailtasun maila ertain-handikotzat jo dute. Ikazkintzak pago motzetan utzitako aztarnak ikusiko dituzte.

Bigarren irteera maiatzaren 22rako eratu dute. Goizeko 10:00etan Aramaioko Etxaguen auzoan elkartu eta Ipiztekoarria-

ga, Zabalaundi eta Lezeaga zeharkatuko dituzte, berriz ere Etxaguenera joateko. Ehun urtetik gorako pago motzek osatutako pagadiak eta Ipizte mendiko harkaitza ezagutzeko eskaintza da; zailtasun maila ertainekoa, 7,5 kilometro luze ditu ibilbide horrek.

Ekainaren 5ean, GR Mikeldi ibilbidearen zati bat egingo dute, Atxarten hasi eta amaituz. Ibilbidea Untzilatx mendiaren hegaletik doa, eskalada egiten den horma bertikalen azpitik. Goizeko 09:30ean Atxarteko harrobi zaharrean dute zita; 9 kilometro ibiliko dira, zailtasun ertainean.


Ekainaren 19an, kostaldearen eta barnealdearen artean produktuak –ardoa eta arraina, besteak beste– trukatzeko erabiltzen zen GR 38 ibilbidea bisitatuko dute. Urkiolan batuko

dira 09:45ean, Urkiola-Otxandio zatia egiteko. Otxandiora helduta, Urkiolara bueltatuko dira, 12:45eko lineako autobusean.

Programa autogidatua

Bestalde, udaberri honetan mantendu egingo du Aldundiak familientzako eta adin guztietako lagun taldeentzako programa. Aldez aurretik emango duten material baten bitartez, bisitariek euren kabuz egin dezaketen ekintza da. Motxila batean ekintzarako beharrezkoa izango den materiala banatuko diete: landa-koaderno, idazteko materiala, Urkiolako ura aztertze testu... Toki-Alai interpretazio zentrorra jo behar dute interesdunek.

Erakusketa eta hegazti-behatokia lako ekintzak sartu dituzte eskaintzan. ■ M.O.

Durango
Uribarri 13 • Tel.: 94 623 26 21
 Konfiantzaren balioa **piso **

zure neurrira egokitutako konfiantzazko irtenbideak

ZALDIBAR Erref. 002-493
 • 126.212€ (20,9 milioi)



Erdi berriztuta dagoen etxebizitza. 3 logela, egongela, komuna eta sukaldea. Garajea. AUKERA EZIN HOBEA!

IURRETA Erref. 002-1227
 • 179.702€ (29,9 milioi)



Berriztuta dagoen etxebizitza. 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. ZATOZ IKUSTERA!

ARAMOTZ Erref. 002-1173
 • 180.000€ (29,94 milioi)



50 m². Berriztatuta. Orientazio ona. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. ZURE ETXEBIZITZA IZAN DAITEKE!

DURANGO Erref. 002-31
 • 180.303€ (30 milioi)



Estreinatzeko. Ilogailua, logela bikoitza, egongela, sukaldea eta komuna. AUKERA EZIN HOBEA!

KOMENTUKALEA Erref. 002-1235
 • 198.334€ (33 milioi)



Ilogailua duen etxebizitza. Berriztatua. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. ZATOZ GUREKIN IKUSTERA!

DURANGO Erref. 002-1140
 • 199.000€ (33,1 milioi)



Erdialdean kokatua. Guztiz berriztuta dagoen etxebizitza. 2 logela. Eguzkitsua. Orientazio ona. BERRIA DIRUDI!

ASKATASUN ETORB. Erref. 002-1270
 • 210.354€ (35 milioi)



Berriztatutako etxebizitza. Ilogailua. 2 logela bikoitz, egongela handia eta sukaldea. AUKERA! HILEKO ETXEBIZITZA!

SAN FRANZISKO Erref. 002-1250
 • 222.374€ (37 milioi)



Etxebizitza eguzkitsua ikuspegiarekin. 3 logela, egongela handia, sukaldea, komuna eta balkoia. Trastelekua. BIZITZEKO EGOKIA!

DURANGO Erref. 002-1309
 • 246.414€ (41 milioi)



Kurutziaga zonaldean. Ilogailua. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. guztiz berriztatua. Ganbara.

ELORRIO Eraikuntza berria



2 logela trastelekuarekin 177.000 euro, 3 logela trastelekuarekin 227.500 euro, 4 logela trastelekuarekin 283.000 euro, etxebizitzak terrazarekin 225.000 eurotik hasita. Garajeak aukeran. ERAIKITZAILEAREN ZUZENEKO PREZIOAKI ETORRI PISO ON-era!

DURANGO Erref. 002-1300
 • 249.000€ (41,4 milioi)



10 urte dituen etxebizitza altua. Eguzkitsua. 2 logela bikoitz, egongela-sukalde handia eta komuna. Garajea eta ganbara. NEURRIKO PREZIOA!

BERRIZ Erref. 002-1233
 • 258.435€ (42,9 milioi)



3 urteko aintzinasuna duen etxebizitza. 3 logela bikoitz eta 2 komun. Trastelekua eta garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. AUKERA ONA!

FKO. IBARRA Erref. 002-1295
 • 261.440€ (43,5 milioi)



Erdi berria. 2 logela bikoitz, sukalde-egongela handia eta Ilogailua. Garajea eta ganbara. SALTZEKO PREMIA!

SAN ROKE Erref. 002-1182
 • 291.490€ (48,5 milioi)



Egoitza-gunean kokatutako etxebizitza altua. 3 logela bikoitz, egongela handia, sukaldea balkoia eta eskegitokiarekin eta 2 komun. Ilogailua. Ganbara eta garajea.

ASKATASUN ETORB. Erref. 002-1287
 • 292.100€ (48,6 milioi)



2 logela bikoitz, 2 komun, egongela handia eta sukaldea. Etxe osoak kanpora ematen du. Orientazio ona. Ilogailua. Garajea eta trastelekua.

HERRIKO GUDARIEN Erref. 002-1230
 • 306.513€ (50,9 milioi)



Eguzkitsua eta orientazio ona duen etxebizitza. 3 logela bikoitz, 2 komun, egongela zabala eta sukaldea. Ilogailua eta berogailua. Garajea eta ganbara. ZUREA IZAN DAITEKE!

SAN IGNAZIO Erref. 002-1188
 • 312.526€ (51,9 milioi)



14 urte dituen etxebizitza. 90 m². 3 logela bikoitz, 2 komun, sukalde handia eta egongela. Ganbara eta garajea. AUKERA ONA!

DURANGO ERDIALDEAN BERRIZTUTAKO JAUREGITXOA



Azkeneko solairuan 2 logela eta 2 komun, garajearekin. 294.500 euro (49 milioi). Azkeneko solairuan 3 logela eta 2 komun, garajearekin. 324.500 euro (54 milioi)

DURANGO Erref. 002-1262
 • 336.566€ (55,9 milioi)



Erdialdean kokatua. Eguzkitsua. 95 m². 3 logela bikoitz, 2 komun, egongela handia eta sukaldea. Ilogailua. Berriztatua. Ganbara, trastelekua eta garajea. OSO PISU ONA!

MARTXOAREN 8KO Erref. 002-1243
 • 353.214€ (58,7 milioi)



2 urteko aintzinasuna duen pisu eguzkitsua. 3 logela bikoitz, 2 komun, sukalde handia eta egongela zabala. Garajea itxia. OSO PISU ONA!



Konfiantzaren balioa

piso 
 .com

zure etxea saltzeko edo erosteko...

Zertifikatutako Bizkaiko lehen inbiliaria sarea



AGENDA >

> ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Maiatzaren 7an
Berrizko Kultur Etxean

LAS GALLEGAS

Umorea eta clown teknika uztartzen dituen antzezlan da Lolita Corina Barzelonako taldeko antzele biek *Las Gallegas* izeneko ikuskizun honetan eskaintzen dutena. Protagonista biek euren "hileta delirantea" zelan bizi duten erakusten du obrak. Clown teknikan oinarritutako antzezlana sortzen 1986tik diharduen antzele bikotea zuzentzen Alex Navarro kataluniarrak dihardu. Bihar Berrizko Kultur Etxean dauzkagun *Las Gallegas*.

ANTZERKIA

BERRIZ

- » Maiatzaren 6an, EPA Santurtzi taldearen **El Séptimo cielo**, 20:00etan Kultur Etxean.
- » Maiatzaren 7an, Lolita Corina taldearen **Las Gallegas**, 20:00etan Kultur Etxean.
- » Maiatzaren 13an, Bihar taldearen **Hau natura! Aire, Lurra eta Ura!** 18:00etan Kultur Etxean.

ELORRIO

- » Maiatzaren 11n, lurretako eta Elorrioko taldeen emanaldiak, **Zugan ni** jaialdiaren barruan, 20:00etan Arriola antzokian.

ZORNOTZA

- » Maiatzaren 6an, **Plecs** ikuskizuna, 21:00etan Zornotza Aretuan.
- » Maiatzaren 13an, **Zugan ni** antzerki lehiaketaren emanaldia, 21:00etan Zornotza Aretuan.

DEIALDIA

IURRETA

- » Astelehenero, 20:00etan **San Migel jaiak** antolatzeko IMI-ko lokaletan burutzen dituzten

batzarretan parte hartzeko gonbita iurretarguztietan.

ERAKUSKETA

BERRIZ

- » Maiatzaren 7tik 16a arte, **Kaleko Pintura** lehiaketako margolanen erakusketa, Kultur Etxean.

DURANGO

- » Maiatzaren 5etik 30 arte, **Carlo Lauricellaren From sea to sea**, Arte eta Historia Museoa.

ERREZITALDIA

DURANGO

- » Maiatzaren 6an, **IV. Pentsamenduaren Poesia jaialdian**, berbaldiak eta poesia errezitaldiak 19:00etan hasita, Kurutzasantu Museoa.

IKASTAROA

DURANGO

- » Maiatzaren 10etik 13ra, Marcelo Katz antzele argentinarrak gidaturiko **clown ikastaroa** San Agustinen. Informazio gehiago www.marcelokatz.com.ar interneteko helbidean.

KONTALARIA

IURRETA

- » Maiatzaren 13an, **Mireia Delgado** ipuin kontalariaren umeentzako saioa, 17:30ean (3-4 urtekoentzat) eta 18:00etan (5 urtetik gorakoentzat), Bibliotekan.

MUSIKA

DURANGO

- » Maiatzaren 7an, **Beti-bizi** ikuskizuna, 22:30ean San Agustín kulturgunean.
- » Maiatzaren 13an, **Nacho Vegas**, 22:00etan Plateruenean.

JAIK

TRAÑA-MATIENA (San Prudentzio jaiak)

- » Maiatzaren 6an, 19:30ean **koreografia jaialdia** Errota kultur etxean. 21:00etan **frontenis txapelketaren finala** frontoian. 23:00etan **Hesian** eta **Trikizio** taldeen kontzertuak Traña plazan.
- » Maiatzaren 7an (mozorro eguna), 10:30ean **umeentzako quad**-ak Galizia plazan. 11:00etan **Areto**

futbol partida eskoletan. 11:00etan **saskibalo** partida frontoian. 11:00etan **umeentzako jolastokia** Galizia plazan. 12:00etan **Areto futbol partida** eskoletan. 16:00etan **umeentzako jolastokia** Galizia plazan. 16:30ean **I. San Prudentzio Hiri milia**. 17:00etan **San Prudentzio pilota txapelketaren finala**. 22:30ean **su artifizialak**. 23:00etan **disko dantza** Galizia plazan. 23:00etan **rock jaialdia** Traña plazan: **Hechizo, Pedrá**, eta **A pelo y Tú** taldeak. 24:00etan **mozorro txapelketako sari banaketa** Galizia plazan.

- » Maiatzaren 8an, 12:00etan **umeentzako jolastokia** Traña plazan. Perretxiko pintxoak eta **salda**, 12:30ean Trañabarren etorbidean. 16:00etan **umeendako jolastokia** Traña plazan. 17:00etan **Zirika Zirkusen** saioa Trañabarren etorbidean. 18:00etan **xake erakusketa** Pino plazan. 20:00etan **Donien Atxa kentzea**, Uskelabe txarangak alaturik.

ZINEMA

BERRIZ

- » Maiatzaren 8an, **Rio** filmaren emanaldia, 17:00etan Kultur Etxean.

ELORRIO

- » Maiatzaren 12an, **Sabine dauka izena** dokumentalaren emanaldia, 19:30ean Iturri kultur etxean.

IURRETA

- » Maiatzaren 6an, **Prohibido** dokumenta, 19:00etan Ibarretxe kultur etxean.

ZINEMA

DURANGO

Zugara

Agua para elefantes

Zuzendaria: Francis Lawrence
barikua 6: 19:00/22:00
zapateria 7: 19:30/22:30
domeka 8: 19:30/22:30
astelehena 9: 22:15
martitzena 10: 20:00

Umeen zinema

Justin Bieber.

Never say never 3D
zapateria 7: 17:00
domeka 8: 17:00

Balleta (HD zuzenean)

Bodas de sangre y suite flamenca

astelehena 9: 20:00

Zineforuma

Los chicos están bien

Zuzendaria: Lisa Cholodenko
osteguna 12: 20:30

ELORRIO

Arriola

Los chicos están bien

Zuzendaria: Lisa Cholodenko
zapateria 7: 22:30
domeka 8: 20:00
astelehena 9: 20:00

Umeen zinema

Rio

Zuzendaria: Carlos Saldanha
domeka 8: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

Incendies

Zuzendaria: Denis Villeneuve
domeka 8: 20:00
astelehena 9: 20:00

maiatzeko agenda

Maiatzak 6-13-17-18 • Herri Biblioteka

6an, VIII. Literatur Lehiaketaren sari banaketa: 13:45 DBH, BTX, helduak; 15:00 Lehen Hezkuntza Dokumentalaren proiektzioa. Gaztelera irakurle kluba, 19:00 "Prohibido recodar"
Haurtoen irakurketa kluba (bularretik mintzora) 17:00-17:45 (3-5 urte) / 18:00-18:45 (6-7 urte)
13an, Ipuin kontalaria: Mireia Delgado. 17:30 (3-4 urte) / 18:00 (5 urtetik gora)
17an, Haurren irakurketa kluba. 17:00-17:45 (8-10 urte) Txori kantariak, poeta hegalaria
Helduen irakurketa kluba, 18:30 "No llores, lo que teñeis que hacer es no olvidarnos", Maria Gonzalez Gorosari
18an, Helduen irakurketa kluba, 19:00 "Darwin geurean", Kepa Altonaga

Maiatzak 7-8 • Kimuak Aisialdi Elkarte

Multiabentura asteburua (Rafting + kanoi jaitziera) DBH eta Batxilergoko gazteentzat. Prezioa: 55 euro. Izen emateko: Ibarretxe kultur etxea, kimuak@kimuak-elkartea.com

Maiatzak 7-8-14-15 • Iurretako Txirridulari Elkarte

08:30 Hainbat ibilbide (76-103 km)

Maiatzak 8-15 • Emakumeen Bira Ziklismo K.E.

8an, 10:00 Portugalete (45,5 km, mutlekin)
15ean, 10:30 Mazcuerras (Kantabria 60 km, mutlekin)

Maiatzak 8 • Goiuriko Santi Kurutz jaiak

11:30 Meza. Ondoren Iurretako Dantzariak. Iurretako mendeurrenaren inguruan ekitaldia
18:00 Asto probak

Maiatzak 9 • Anderebide Ibarretxe kultur etxea

18:00-19:00 Hitzaldia: "La nutrición de las mujeres en diferentes etapas"

Maiatzak 14-15 • San Isidro

14an, San Isidro bezpera. Iluntzean txapliguak
15ean, 11:00 Iurretako parrokiako meza

OHARRA

Udako tailerrak

Maiatzaren 2tik 13ra bitartean udako tailerretarako izen-ematea. www.iurreta.net. Tel.: 94 620 03 42

KZgunea ikastaroa

"Oinarriko interneta": Maiatzak 9-13. Orduetgia: 16:00-18:00. Izen-ematea: Maiatzaren 2tik 5era

IT txartela

Maiatzak 18. 18:00-20:00

IURRETAKO UDALA



Maiatzaren 6an, 21:00etan, Zornotza Aretuan

PLECS

Enfila't talde kataluniarraren lana da gaur Zornotza Aretoko oholtzan ikusgai izango dena. "Antzerkia, zirkua, musika eta papera" uztartzen dituen lana da *Plecs* izenburupean dakargituen. Paperezkoa da eszenarioa, eta "bizitza dagoeneko idatzirik dagoen, baina tolestura bakoitzarekin harrizten gaituen partitura" dela dio obraren leloak.

ZORION AGURRAK >

zorionak@anboto.org • Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta



Paula Arrazolak maiatzaren 3an 11 urte egin zituen. Zorionak aita, ama eta Nagoren partez. Jarraitu hain zorionsua izaten!



Anek 9 urte egingo ditu igandean. Zorionak Izurtzako neskatilarik politenari, guraso, aitita, amama eta lehengusuen partez. Aupa Osasuna!



Aratz Gorrotxategi apirilaren 25ean jaio zen, ia 3 kilorekin. Ongi etorri, Aratz! Musu potolo bat familia guztiaren partez!



Zorionak Euri zure bosgarren urtebetetzeari! Musu eta besarkada bana aita, ama eta Anderren partez!



Gure Izaro pizpiritak 2 urtetxo egingo ditu gaur. Zorionak eta musu potolo-potolo bat zure Abadiñoko koadrilaren partez!



Igandean, maiatzaren 8an, Marianak 65 urte beteko ditu. Zorionak Barçako amamari eta musu handi bat denon partez!



Izei Lupiañez Cuberok urtetxo bat bete eban apirilaren 30ean. Zorionak Izei, ilargiraino eta buelta maite zaituen osaba Gorkaren partez! Musutxo gozo pilo bat bioi, Galiziatik!



Argazkiko neska eta mutil gazte hauek maiatzaren 10ean ospatuko dituzte euren urrezko ezteiak. Zorionak Victor, Rosi eta Maialenen partez!



Argazkiko sorginak bost urte bete zituen asteartean. Zorionak etxeko kriskitinari, Irati, aitaxo eta amatxoren partez!



Zorionak **Aimar!** 15 egunero zotz egin dugun tarta zuri egokitu zaizue. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu, lurretako Bixente Kapanaga 9an.



Eskerrik asko **AEK**, 17. korrika antolatzeagaitik. Donostia osoa euskalakariz beteta ikusteak hunkitu egin gintuen. **Irati, Unai, Malen eta Peio.**

SUDOKUAK

1			8	4					
		7				5	1	2	
6									
	1	5					4		
			1	7			3	9	
			4	3					
1	5	6					2		
				9	8				
	8	2		1			5		

2		8		5					
	6	4		1			8		
							6	4	
			3	6	9				
			2		7				
							7	8	1
	5	1							
			7				4	3	
			3						9

BOTIKAK >

- Barikua, 6**
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
- Zapatua, 7**
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
09:00-13:30
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
• Unamunzaga (Murrueta Torre 2C - Durango)
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
• Larrañaga-Balentiaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
• Urizar (Gabiola 2 - Berriz)
09:00-14:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
- Domeka, 8**
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
09:00-22:00
• Bengoa (Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)
- Astelehena, 9**
09:00-09:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 - Durango)
- Martitzena, 10**
09:00-09:00
• Unamunzaga (Murrueta Torre 2C - Durango)
09:00-22:00
• Jaio-Olabarrieta (Erreka 6 - Elorrio)
- Eguaztena, 11**
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
- Eguna, 12**
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK >

- SOS Deiak**.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
- GARRAIOAK**
- Euskotren902 54 32 10
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
- TAXIAK**
- Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia....946 811 001
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
Iurreta946 201 565
Taxi auzunea688 618 690
- UDALAK**
- Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
- Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16
- UDALZAINGOA**
- Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88
- EGURALDIA >**
- 14 23º **BARIKUA** ☁
- 13 20º **ZAPATUA** ☁
- 11 24º **DOMEKA** ☀
- 10 24º **ASTELEHENA** ☀
- 15 25º **MARTITZENA** ☁

- ARIES** (martxoak 21 - apirilak 20)
Eguraldiak hainbeste baldintzatzen dizu asteburua? Ikasi egizu independentea izaten.
- TAURUS** (apirilak 21 - maiatzak 20)
Goibel antzean zabilta, eta aste honetan ez duzu gogo handirik izango jendartean ibiltzeko.
- GEMINI** (maiatzak 21 - ekainak 20)
Besteen iritziei ez diezu hainbesteko garrantzirik eman behar, nahastu egiten zaituzte-eta.
- CANCER** (ekainak 21 - uztailak 20)
Ez izan guztia hain lotuta. Utzi lekua ustekabeei; batzuetan, atseginak izan daitezke.
- LEO** (uztailak 21 - abuztuak 23)
Pazientzia handia eduki behar izan duzu egunotan. Lasai, ez da halakorik errepikatuko.
- VIRGO** (abuztuak 24 - irailak 23)
Bikoteagaz ondo baino hobeto zaude, beraz, aprobetxatu egizu momentua.
- LIBRA** (irailak 24 - urriak 23)
Primerako asteburua datorkizu; sorpresa atseginen bat jaso dezakezu, adi egon zaitetz, beraz.
- SCORPIUS** (urriak 24 - azaroak 23)
Haserre zabilta azken aspaldian, baina zeuk gura duzulako. Zer edo zer egin beharko duzu.
- SAGITARIUS** (azaroak 24 - abenduak 23)
Lana topatzeko aukera izan dezakezu, asko saiatzen zabilta-eta. Ospatu egizu.
- CAPRICORNUS** (abenduak 24 - urtarrilak 20)
Ez zabilta beti besteko alai. Hala ere, ez zaitetz etxean geratu, on egingo dizu kalera irteteak.
- AQUARIUS** (urtarrilak 21 - otsailak 21)
Beti azkeneko hitza izan behar duzu. Horrela jarraituz gero, lagun bat mindu dezakezu.
- PISCIS** (otsailak 22 - martiak 20)
Ezin duzu dena kontrolpean eduki, eta horrek ezin-negona sortuko dizu. Umilagoa izaten ikasi egizu.

SUDOKUEN SOLUZIOAK

4	5	3	1	7	9	2	8	6
1	9	8	6	2	5	7	3	4
7	2	6	4	8	3	9	5	1
5	8	1	9	3	4	6	7	2
6	3	2	7	5	1	8	9	4
9	4	7	8	6	2	5	1	3
8	6	4	5	1	7	3	2	9
2	1	5	3	9	6	7	4	8
3	7	9	2	4	8	1	6	5

6	9	1	5	8	3	4	7	2
3	5	4	1	2	7	8	9	6
8	7	2	4	9	6	1	5	3
1	8	7	2	3	5	9	6	4
9	3	6	7	4	8	2	1	5
2	4	5	6	1	9	3	7	8
4	6	9	8	7	2	5	3	1
5	2	8	3	6	1	7	4	9
7	1	3	9	5	4	6	8	2

"Polita da egindako lanagatik eskerrak ematera etortzea"

Traña-Matienako aurtengo jaietako omendua da Monica Iglesias; San Prudentzio bezperan, jaien hasieran, jaso zuen oroigarria

Jai az gozaten dabil orain, baina urte askoan lan eta lan ibili zen Traña-Matienako Jai Batzordean. Lanean zein disfrutatzen, bietara garrantzi handia ematen die jaiak, eta pozik hartu gaitu asteon ere, San Prudentzioetan bete-betean gaude eta. Hainbat istorio kontatu digu, jaien antolaketan bitzako urte haiek atseginez gogoratzen dituen seinale.

Zelan hartu duzu omenaldia?

Ezuste handia izan da niretzat. Ez nuen espero; unean bertan ere ez nekien ezer. Gainera, koadrilako beste bati emango ziotela uste nuen! Esan behar dut, nik jaso nuela koadroa sari moduan, baina nigaz lanean ibili ziren denen partez jaso nuela. Eureri ere eskerrak eman gura dizkiet. Ez dakit zenbat zatitan banatuko nukeen koadroa!

Urte askoan ibili eizara lanean Jai Batzordean.

Talde polita batu ginen, eta gure arteko hartu-emana oso berezia izan zen. Nire ustez jai politikak antolatzen genituen guztion artean: euskaldunak, adin eta gustu guztietako jendea begirakoak...

Zenbat denbora egon zinen jaien antolaketan?

Bada, askotxo! (barrez). Gaztetan hasi nintzen; hasieran ekintzaren bat bakarrik egiten genuen; umeentzako tailerrak eta halako gauzak. Baina jende aldetik aldatu egin zen batzordea, eta orduan guk hartu genuen ardurarik handiena. Guztia gu kudeatzen hasi ginen.

Parrandan ere ibiliko zineten, baina, behin edo behin...

Bat ere ez. Ez genuen denborarik edukitzen! Gainera, geneukan diru-

laguntza ere nahiko txikia zen. Hori dela-eta, dirua aurrezteko, guk egiten genituen gauza pilo bat; adibidez, antzerki bat bazegoen eszenatokia guk ipintzen genuen, merkeago ateratzeko. Goiz-goizetik altxatzen ginen, eta gero berandura arte egoten ginen, berbena amaitu eta taldeari ordaintzeko. Lagunekin eta zeozer egiteko ia ez geneukan astirik, baina, bueno, gure artean giro onazegoen, eta ondo pasatzen genuela esan gura nuke.

Lan eta lan zenbiltzaten beti, beraz...

Baina bazuen bere gauza positiboa: ekintzak guk prestatuta, jendea erakartzea ere errazagoa zela uste dut; jendeak ezagutzen zaituelako, hurrekoa zarelako. Umeen tailerrak kanpoko enpresa batek barik geuk eginda, gurasoek errazago ekarriko dituzte haurrak, nire ustez.

Orain, barrutik barik kanpotik ikusten dituzu jaiak.

Bai, apur bat disfrutatzen saiatzen naiz. Badira bost edo sei urte utzi nuela. Lehen oso garrantzitsuak ziren jaiak niretzat, eta orain ere bai. Baina beste era batera.

Zelan joan dira jaietako lehen egunak?

San Prudentzio bezpera oso egun polita izan zen niretzat. Sariagaz gora eta behera ibili nintzen, eta jende asko hurreratu zitzaidan. Polita da jendea egindako lanagatik eskerrak ematera etortzea. Gero, zapatuan, paella eta tortilla txapelketa izan zen; galdu ez den ohitura da hori, eta giroa bikaina

izaten da egun osoan, adin guztietako jendearen artean. Datoren asteburu honetarako ere egin dut plana koadrilakoekin.

Zergatik etortzen da hainbeste jende kanpotik?

Udako lehenengoak direlako, Durangotik gertu



dagoenez oinez etorri zaitezkeelako... ez dakit. Hori kanpoko jendeak esan behar du! (barrez).

Antolaketa sasoiko anekdotaren bat ere izango duzu kontatzeko...

Piloa egongo da, baina orain gogoratzen dudana Mañukortagaz gertatutakoa da. Jaietan geundela, kotxe baten barruan ardi bat zegoela ohartu ginen, eta jende guztia hari begira-begira zegoen. Mañukortarena zen; ardi eta guzti etorri eta hantxe utzi zuen aparkatuta! (barrez).



Jon Artza
Soziologoa

Eta zuek, zer egingo duzue?

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak Bildu-ren zerrenden lege kanporatzearen gaineko epaia bart eman badu ere, artikulu hau herenegun aurkeztu nuen. Xelebrea, erabaki baten biharamuna aztertzeke pentsatua dena, bezperatan idatzi beharra. Beste edozeri buruz ere idatz nezakeen, baina zerbaitek diost honi buruz idatzi behar dudala.

Asko poztuko nintzateke, benetan poztu ere, Gorenak hartutako erabakia bertan behera geratu balitz, eta alderdi eta koalizio guztiek parte hartzeko eskubide bera izango balute. Horrela balitz, egiteko gauza interesgarriagoak izango dituzu, eta, beraz, artikulu hau irakurtzeari utz diezaiokezu. Barka nazatela Anbotoko lagunek. Aitzitik, Konstituzionalaren epaiak Gorenarena berretsi badu, haserre izango zara, eta akaso tipo honek zer dioen jakin nahiko duzu. Litekeena da askoren ahotan dabilen galdera bururatzea ere: zer egingo dute hauek orain?

Nik bi aukera ikusten ditut. Orain arte bezala, alderdi bakoitzak ahal duena egiten saiatzea da bat. Eztabaidagarria izan daiteke ondo ala gaizki egin den; ukaezina dena da, inboluzio nabarmeneko urteotan, alderdi bakoitzak ahal izan duena edo utzi diotena egin duela. Bigarren aukerak, ordea, esfortzu sakona dakar. Norbere interes eta estrategiak alboratu, orokorrean pentsatu eta eman beharreko erantzuna ahalik eta egoki eta adostuena izatea. Beraz, irakurle estimatua, galdera bati beste galdera batekin erantzun duzue: zer egingo dugu?

Monica Iglesias •

San Prudentzioetako omendua izan da

anboto komunikabideek antolatuta:

HAUTESKUNDE EZTABAIDA

Jarraitu zuzenean livestream bidez

www.anboto.org en Maiatzaren 10ean 20:00etan

11 amaika telebistan Maiatzaren 13an 22:40etan